

## Kultura

Elorrioko Ateneoan jaia egingo dute, urriaren 28an, Urkotxo y Los Primos de Riesgo taldearen lehenengo diskoa aurkezteko. >14



*“Nire buruarengan konfiantza itzela nuen, eta banekien lasterketa ona egin nezakeela”*

Ander Gerrikaetxebarria | Korrikalaria >15



## Frankismoko biktimak omenduko dituzte, domekan, Zaldibarren

Zaldibarko Udalak lehenengoz antolatu du Frankismoko biktimen omenezko ekitaldi bat. Frontean, erbestean zein bonbardaketetan hildakoak eta desagertutakoak omenduko dituzte, urriaren 23an, 12:00etan, udaletxe plazan egingo duten ekitaldian. Urriaren 25ean 80 urte beteko dira Primo Bastida gazte zaldibartarra gerrako zaurien ondorioz hil zela. > 6



Zaharren egoitza kontzertatuetan hiru asteko greba hasiko dute astelehenean. Euren lan baldintzek zaharren arretan eragiten dutela-eta, arduratuta daude. Duintasuna aldarrikatzen dute. > 5

*“Zaharrek arreta gizatiarra merezi dute”*

**ALKIMAX**  
Alquilamos soluciones

BERRIZ  
Eitua industriagunea, 71C  
Tel.: 946 824 550

GERNIKA  
Goiko Ibarra, 26  
Tel.: 946 271 310  
alkimax@alkimax.net  
www.alkimax.net



### Mañaria > 9

Kirikiñoren lana azalduko dute bere jaiotzaren 150. urteurrenean

### Abadiño > 8

Bittor Garaigordobil gotzain ohia omenduko dute 101. urtebetetzean

### Otxandio > 2

125 familiak bat egin dute auzo-konpostaren ekimenagaz

### Durango > 3

Mozorroa jantzita, sanfausto luzeei amaiera emango diete



## Herririk herri

**OTXANDIO** Joseba Derteano Hondakin organikoekin auzolanean konposta egiteko sei gune martxan izango dira 15 bat egunen barruan. Orduan, Otxandioko 125 bat familia ibiliko dira auzo konposta egiteko ekimenean, 22-25 bat familia gune bakoitzeko.

Letxerienako lehenengo konpost gunean izandako harrera onak animatu ditu Herri-olako Zero Zabor batzordeko kideak beste bost gune ahalbidetzera. Horietako bi orain pare bat astetik martxan daude: Maiñerrotakoa eta Elizabarrikkoa. Gainerako hirurak datozen bi asteetan jarriko dituzte abian: Elizosten, Basogain eta eskolan. Azken hori jantokiko hondakinak birziklatzeko erabiliko dute, eta baita ikasleen artean pedagogia egiteko ere.

### Kalitatezko konposta

Konpost-gaia lau-bost hilabetez konpost gunean egon ostean, ondoko beste edukiontzi batera aldatzen dute, eta beste hilabete bi inguru behar izaten da erabiltgarri egoteko. Letxerienako

# Otxandioko 125 familia batu dira auzo konposta egiteko ekimenera

Azaroan zehar sei konpost gune egongo dira martxan herrian



Elizoste parkeko orbela, jasota; laster xehatu egingo dute konpost prozesuan erabiltzeko.

konpostaren kalitatea zer nolakoa den jakiteko, lagin bat aztertzerantz bidali dute, eta “emaitzaren arabera, kalitaterik oneneko konposta da”, Zero Zaborreko kide eta udaleko zinegotzi den Juan Mari Otxandianok azaldu

duenez. Aldiro, azterketak egin jarraituko dute. Auzo konposteko partaideek lehentasuna dute konposta erabiltzeko, eta, sobratzen bada, “herritarren zerrenda luze bat zain dago”, Otxandianoren esanetan.

### Orbela batu eta erabili

Udazkena da, eta Elizoste inguruan dagoen parkeko zuhaitzak hostorik barik daude. Baina orbela ez dago lurrian barreiatuta. Parkearen erdian eta lau hesiren barruan pilatuta dago.

Laster xehatu, eta konpostari nahastu ohi zaion material lehor moduan erabiliko dute. Datorren urteari begira, xehaketa errazteko, makina birrintzaile bat erosi gura dute.

### Teknikaria etxerik etxe

Otxandioko hainbat lagun auto-konposta egiten dabil. Horretarako materiala udalean jaso eta etxean norbere kontura egitea da autokonpostaren helburua. “Baina beti sortzen dira dudak, eta komenigarria da jarraipen bat egitea”. Horregatik, datorren astetik aurrera, gaian aditua den teknikari bat autokonposta egiten dabiltzaneren etxe denetara joango da dudak argitu eta argibideak ematera.

### 5. edukiontzia

Bosgarren edukiontzia jartzeko asmoak harrera hotza izan du, momentuz. Interes maila jakiteko abiatutako kanpainari herri-tar batek baino ez dio erantzun. Bost edukiontzi erosita dituzte, eta, aurrera begira, arlo honi bultzada berri bat emateko asmoa erakutsi dute.

## Ehunka gutun Moncloara dispertsioa salatzeke

Domekan ekitaldia egingo dute Andikonan

**OTXANDIO** J.D.

Otxandioko Sarek euskal preso politikoen dispertsioa salatzeke eta bere amaiera eskatzeko ekimena abiatu zuen maiatzean, eta domeka honetan, 13:30ean, amaiera ekitaldia egingo dute Andikona plazan.

Maiatzetik uztailera dispertsioaren amaiera eskatzen duen gutun bat sinatzeko aukera eskaini diete herritarrei. Herritar bakoitzak gutun bat sinatu ahal izan du. Denbora honetan ehunka gutun batu dituzte, eta ho-

riek denak, Espainiako Gobernuko presidenteari zuzenduta, Moncloara bidaltzen hasiko dira datorren astetik aurrera. Domekako ekitaldiagaz urrats hori irudikatu gura dute; gutunak jasotzetik gutunak bidaltzera emango duten pausoa.

Domekan ikuskizun bat ere erakutsiko dute. Bertan, dispertsioa bizi dutenak ez ezik, bestelako preso mota batzuk (gaixotasun larriak dituztenak, bizitza osorako espetxealdia dutenak...) ere gogoratuko dituzte.

## Berdintasuneko “etorkizuneko erronkak” herritarrek lantzen hasi dira Elorrión

Aurreko planaren azterketa egin ostean, orain aurrera begira ipini dira

**ELORRIO** A.E./M.O.

Elorrioko Udalak antolatutako IV. Berdintasun Planaren barruan, *Amestutako Elorrio Parekidea Egin* prozesua hasi zuten urte hasieran. Hainbat fasetan banatuta jorratu dute, aurreko planaren azterketa kasu, eta orain, aurrera begira ipini dira. “Etorkizuneko erronkak” lantzen hasi dira herritarrek batera.

Martitzenean ekin zieten batzarrei, eta atzo burutu zuten bigarrena. Hilaren 25ean alder-

di politikoetako kideekin jorratuko dute gaia, eta 26an udaleko beharginekin.

### Bulego berria

Bestalde, Gizarte Zerbitzuetara-

Berdintasuneko azken solairuan zegoen orain arte, eta gizarte langilea udaltzainen bulegoan

ko bulego berria zabaldu dute udaletxeko lehen solairuan. Bertan, arlo horretako teknikariaz gainera, Berdintasun arlokoa ere egongo da. Udalak ohar bidez azaldu du herritarrendandik eskurago egoteko hartu dutela erabakia. Izan ere, berdintasuneko azken solairuan zegoen orain arte, eta gizarte langilea udaltzainen bulegoan. “Sail hauetan egon daitezkeen gai delikatuak” kontuan izanda, bulego berriak intsonorizatu egin dituzte.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2016ko urriaren 21a  
14. urtea - 650. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Itxaso Martinez de  
Arenaza Yarza eta Nagore  
Txintxurreta Isasi.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga,  
Itsaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
eta Maialen Zuazubiskar  
Gallastegi.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Mikel Azkarraga Etxegibel.

### Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek  
Bizkaiko Foru  
Aldundiaren  
laguntza jaso du





# Mozorroa jantzita, sanfausto luzeei amaiera ematen hasteko

Bihar Mozorro Eguna ospatuko da Durangoko jaietan; 18:30ean da desfilea

**DURANGO** Markel Onaindia  
Duela aste eta erdi hasi ziren Durangoko jaiak, eta gezurra badirudi ere, oraindik asteburu bete-betea falta da aurretik. Durangarrak eta inguruetak jai-zaleak mozorroa jantzita ibiliko dira bihar, sanfausto luze hauei amaiera ematen hasteko.

Izan ere, hain arrakastatsua izaten den Mozorro Eguna ospatuko dute bihar Durangon. 11:00etan haurrentzako mozorro tailerra egongo da Andra Marian, eta 13:00etan ere umeak izango dira protagonista, desfilean. Eguneko ekitaldi garrantzitsu bat, eta duela gutxi berreskuratu dutena, 18:30ean etorriko da, taldekako mozorro desfilea, hain zuzen ere. Amaieran sari banaketa egingo dute partaideen artean.

Bestelako ekitaldien artean, 12:00etan patata tortilla txapelketa jokatu dute Landako Gunean, eta eguerdian elkartasun

bazkaria egongo da txosnetan. Gaur Nueva Alaska taldeagaz –Andra Marian– eta Luhartzen erromeriagaz –Pinondon– amaituko da.

## Domekan, osasuna

Zapatuan parranda egin ostean, domekan osasunari begiratzea tokatzen da. Batzuek kirola egingo dute, eta beste batzuek Ingurumenaren Eguna lez izendatutakoa aprobetxatuko dute munduaren osasunaz ardura-tzeko.

Bestelako ekitaldien artean, 12:00etan tortilla txapelketa jokatu dute Landako Gunean

Goizez eta arratsalde, birziklatutako jolasak eskainiko dituzte Ezkurdin, eta 11:30ean

Bizikletaren jaia hasiko da Andra Marian. Familiako plana bidegorritik burutuko dute, eta mendi bizikletako ibilbide bat ere prest egongo da 10 eta 14 urte artekoentzat. Jaiak amaitzeko, Txosnagunean Lumi taldearen kontzertua iragarri dute, 18:00etarako; Patxikotxuri agur esateko, 19:30ean kalejira irtengo da udaletxetik, tren kotxetegi zaharretaraino.

## Udaltzainen esku hartzea

Udaltzaingoaren gertakarien berri eman du udalak, eta lehen asteburuan 6 bider esku hartu behar izan dute. Domeka goizaldean borroka bi jazo ziren Alde Zaharreen, eta zauritu bi Galdakaoko ospitalera eraman zituzten; bati botila bategaz kolpea eman zioten buruan.

Gainera, lagun bati alkoholemia-proban positibo ematea egotzi zioten, eta beste bati drogak edukitzea.



Joan zen domekan txupinazo txikirako kalejira egin zuten Patxikotxugaz.



Marmitako txapelketan 112 taldek parte hartu zuten; irudian, irabazleak.

# Eraso sexisten aurkako erantzun historikoa eman zuen Durangok

12ko goizaldeko erasoaren aurka, jaiak eten eta mobilizazioak egin zituzten



Zapatuan mobilizazio eta etenak egin zituzten eraso salatatzeko.

## DURANGO M.O.

Urriaren 12ko goizaldean sexu erasoak sufritu zuen neska batek, Durangoko jaietako lehen gauean. Salaketa ipini eta barikuan egin zen publiko eraso, udalaren gaitzespenagaz batera. Hortik aurrera, eraso sexisten aurkako erantzun historikoa eman zuen Durangok, orain arte herrian ikusi bakoa. Izan ere, zapatuan, mobilizazioak burutu eta jaiak eten zi-

Urriaren 12an sexu eraso bat sufritu zuen neska batek, jaietako lehen gauean

tuzten ordu erdiz. Jende ugari egin zuen bat erasoaren aurka.

Zapatuko lehen deialdia 20:00etan izan zen, Udal Berdintasun Kontseiluak deituta. Herriar asko batu ziren Andra Marian egindako elkarretartzera. Gero, gauez, jaiak ordu erdiz gelditu ziren, 23:30etik 00:00etara. Tabernetan eta txosnetan ez zuten zerbitzurik eman, eta jaietako ekintzak ere eten zituzten. Duela aste pare bat eraso sexisten aurka 240 elkarte eta tabernak baino gehiagok sinatutako Herri Akordioan jasotako konpromisoetako bat zen hori. Gainera, etena egin zen ordu horretan, manifestazio oso jendetsua burutu zen Txosnagunetik hasi eta Alde Zaharretik zehar.

**MATERIAL DE CONSTRUCCION**  
**MACOBER**  
Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**  
Zeramika eta gresa  
Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

**Urrike**  
Liburudenda  
Kalebarra z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

**Podinara Urreta Jainaga**  
OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ  
**IMQ** **MAPFRE**  
Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404



# Zornotzako AIDAE elkarteari laguntzeko Elkartasun Jaia, bihar

Jolasak, bertsolariak, musika... izango dira Luis Urrengoetxea kalean



Astebururo irteerak antolatzen dituzte, herrian bertan zein handik kanpora. AIDAE

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Zapatuan Elkartasun Jaia antolatu du Luis Urrengoetxea kaleko tabernariak osatzen duten Lutaber elkarteak. Goizetik gauera hamaika ekimen antolatu dituzte, eta batutako dirua gutxituen integrazioan lan egiten duen Zornotzako AIDAE elkarteari emango diote.

Euskal Herria plaza izango da erdigunea. 12:00etatik aurrera, txosna bat jarriko dute bertan, elkarteko tabernariak hornitutako edari eta pintxoekin. Goizean zehar umeentzako jolas eta tailerrak antolatuko dituzte eta, 13:00etan, txistulariak kalejiran irtengo dira. 13:30ean, herriko bertso eskolako kideek bertso saioa eskainiko dute.

Bazkalostean, 16:00etan, jarraituko du jaiak zumba ikastaro batez. Zornotzako kiroldegian zumba klaseak ematen dituen monitore batek eta bere ikasleek eskainiko dute saioa, parte hartu gura duten denek atea irekita. 17:30ean, Ale Hop dantza taldearen erakustaldia hasiko da. 19:00etako txokolata-daren ostean, Eneko eta Iratxe

zornotzarrek 20:00etan hasiko duten kontzertuak emango dio amaiera zapatuko Elkartasun Jaiari.

## Ibilbideak astebururo

Zornotzako gutxitu gazteen integrazioan lan egiten du AIDAEk. Zapaturu eta domekero irteerak antolatzen dituzte, herrian bertan zein handik kanpora, monitoreen laguntzagaz. 20 bat gazte elkartzen dira ibilaldi horietan. Hilean behin egunpasak ere antolatzen dituzte. Autobusean joan, eta ekintzak egiten dituzte. “Euren artean hartuemanak sendotzen dituzte, eta beste jende batez hartuemanetan egoten dira. Hori onuragarria zaie. Era berean, familientzat denbora libre ahalbidetzeko modua ere bada. 24 orduko zaintza horretatik apur bat irten eta eurentzat tarte bat izan dezaten”, azaldu du Ana Mari Delgado AIDAEko kideak.

Askotariko irteera horiek eragiten dituzten gastuak (monitoreak, bidaia...) ordaintzeko erabiliko dute Elkartasun Jaitik jasotako dirua.

# Gizarteratze teknikariaren lanean sakontzeko diagnostikoa, Oruen

Lanpostuaren funtzioak identifikatu eta zabaldu gura dituzte



Orueko eskaintza gizarte arloan zentratzen da.

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Gizarte arloko elkarte edo erakundeetan gero eta ohikoagoa da gizarteratze teknikariaren lana. Azken urteetan, hezitzaile profil ezberdinen beharra hazi egin da, eta horien artean dago gizarteratze teknikariarena. Hala ere, oraindik nahiko profil berria da —1995ean sortu ziren arlo horretako ikasketak—, eta ez da lanpostu ezaguna. Horregatik, lanpostuko funtzioak zehazten jarraitzeko eta ikastetxeko eskaintza beharrianetara egokitzeko, diagnostiko bat egiten dabil Orue eskola bere 10. urteurrenean.

Ikastetxetik irtendako gizarteratze teknikariaren lehen belaunaldia iazkoa izan zuten. Zenbait elkartetan praktikak egiten zebiltzala, lanpostuaren definizio sakonagoa, zehatzagoa eta xehatuagoa behar zela ohartu ziren Maitane Muñoz irakasle eta trebakuntza osagarriaren arloko arduradunaren esanetan: “Hainbat elkartetako ordezkariekin batu ginen, eta gizarteratze teknikari askoren artean inkestak egin genituen. Behar nagusiak definitzea zen helburua. Gehienbat trebakuntza beharrak zeudela ikusi genuen”. Horren arabera diseina-

Elkarteekin batu eta inkestak egin ostean, gehienbat trebakuntza beharrak ikusi zituzten

tu dute aurtengo trebakuntza eskaintza.

## Jardunaldiak

Diagnostikoak hiru fase ditu. Lehenengoa trebakuntza osatzera bideratu dute, eta bigarre-

2017 hasieran lanpostuaren gaineko hausnarketa kolektiboa helburu duten jardunaldiak egingo dituzte

naren helburua lanpostuaren funtzioetan sakontzea izango da. Horretarako, jardunaldi batzuk antolatu dituzte 2017 hasierarako, urtarrilaren 10a gizarteratze teknikariaren nazioarteko eguna da eta: “Hausnarketarako gune bat izango da”. Azkenik, ekainean, diagnostikoaren emaitzak aurkeztuko dituzte.

**ALBERDI**  
HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658
SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722



# “Zaharrek arreta gizatiarra merezi dute; ‘oraintxe noa’ esaten ibiltzeaz nekatuta gaude”

Rodriguez eta Ereñaga lako hainbat zahar-zaintzailek hiru asteko greba hasiko dute astelehenean



Kontxi Rodriguez eta Geno Ereñaga.

► **DURANGALDEA** M. Onaindia  
Egoitzetan dauden pertsona zaharrak euren bizitzako azken etapa bizitzen ari dira, eta prozesu berezi horren jakitun egiten dute lan zaintzaileek. Badakite pertsonekin egiten dutela lan, eta eurentz arduratzen dira. Badakite euren lanak zaharengan eragina duela, baita familiengan ere. Zentro kontzertatuetako behargin asko ez daude gustura lan badintzekin, eta zaharrek zerbitzu hobea merezi dutela usate dute. Egoera hobetzeko bo-

rrokan, ELAk deituta 32 egun egin dituzte greban jadanik, eta astelehenean, hiru asteko grebari ekingo diote. Kontxi Rodriguez eta Geno Ereñaga zaintzaile edo gerokultore durangarrak dira horietako bi. Bizkaiko deialdira Durangoko Barandiaran eta Astarloa, Zornotzako Orue eta Jose Maria Azkuna eta Ermuko Abeletxe-koak batu dira.

Hiru asteko greba hasiko duzue astelehenean. Zer eskatzen duzue?

“*Ratioek gure lan kargan eragiten dute, baina baita erabiltzaile eta senideengan ere*”

**K.R.:** Duela kasik urtebetetik aldarrikatzen gabiltzana eskatuko dugu orain ere. Soldata, baimenak, lanaldi laborala hobetzea... Patronalek, uneotan

6 euroko soldata igoera proposatu digute, eta urtean ordu bi gutxiago lan egitea. Suminduta gaude, errespetu falta itzela da beharginei eta erabiltzaileei begira.

**G.E.:** Urtean, 1.698 ordu lan egiteko hitzarmen bat dugu; asteburuetan edota jaiegunetan tokatzen zaigu. Ratioak, lanaldi bakoitzeko behargin kopurua, handitzea eskatzen dugu. Izan ere, 1999tik ezarrita daude, eta ez dute zerikusirik egungo beharrek; gero eta erabiltzaile gazteagoak etortzen ari dira, berrogeita hamapikukoak, adibidez. Arreta gizatiarra merezi dute; “oraintxe noa” esaten ibiltzeaz nekatuta gaude.

**K.R.:** Duintasuna eskatzen gabiltza. Ratio horiek gure lan kargan eragiten dute, baina baita erabiltzaileen eta senideengan ere. Senide gehienek babesa erakutsi digute aldarrikapenetan, eta horrek poztzen gaitu. Eurek ere ikusten dute ez dugula behar beste esku hainbeste lanerako. Gatazka hau aspalditik dator, eta senide asko nekatuta daude, ez dakitela zer egin.

**Zenbat zahar daude zuen lantokietan?**

**G.E.:** Gure egoitzan, Barandia-

ranen, 115 plaza dauzkagu, eta kasik %100ean beteta egoten da urte osoan. Egunez zentroan ere 40 bat egoten dira.

**K.R.:** Gurean, batzuek denbora gutxi egiten dute, itxaron zerrendetan-edo daudelako. Baina 110 bueltan ditugu.

**Alderik badago Aldundiak zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen egoitzetan?**

**G.E.:** Alde itzela dago. Erabiltzaile kopuru bererako lan-talde bikoitza dute. 106 ordu gehiago egiten dugu lan, eta %40 eta %60 artean gutxiago kobratu. Bere zuzeneko zentroetarako arreta egokia exijitzen bado Aldundiak, zergatik ez kontzertatuetarako? Kontzertatuek ere diru publikoa jasotzen dute. Bestalde, enpresek etekinak edukitzen jarraitzen dute.

**K.R.:** Mileuristak gara, baina lanaldi asko partzialak dira, eta jende bat ez da mileurista izatera ere heltzen. Prekarietate itzela dago.

**G.E.:** Langile batzuk goizez eta gauez etortzen dira, erabiltzaileak altxatzera eta ohean sartzera.

**Lan gogorra izango da sarritan, ezta?**

**K.R.:** Askotan, bai. Patologiak tratatzen jakin behar da, eta egoera zail horiek gestionatzen ere bai. Euren babes gara sarritan.

**G.E.:** Bai, euren familia ere bagara apur bat. Lan gogorra da, baina betetzen zaituena ere bai. Gustatu egin behar zaizu. Ahal duzun guztia ematen diezu, eta jaso ere egiten dugu.

**Pertsonak zaintzen egiten duzue lan. Ez al luke horrek lehentasun izan beharko?**

**G.E.:** Eurentzat zenbakiak gara. Zenbakiak gara langileak, erabiltzaileak eta oheak ere bai.

**K.R.:** Negoziazio mahaian nago, eta lotsagarria da enpresariak zenbakiei bueltaka ikustea. Zaharrak euren bezeroak dira, bai, baina pertsonak dira, eta arreta eman behar zaie.

**Gainera, kontuan hartu behar da senideentzat prozesu delikatua izan ahal dela nagusiak egoitzan sartzea...**

**G.E.:** Txarto pasatzen dute normalean. Txarto pasatzen hasten zara etxean egoera zailtzen hastean, dependentzia batzuk ezin dituzunean bete... Hala ere, kosta egiten zaie egoitzara eramatea. Denetariko sentimenduak dituzte. Batzuek, azkarregi ekarri ez ote duten galdetzen dute gero, baina guk ikusten dugu behar hori bazuela.

**K.R.:** Era askotako bizipenak pasa dituen jendea da, eta bizitzako azken etapan dagoena. Beraz, tratatu duina merezi dute.



Beharginak, duela hile batzuk egindako elkarretaratze batean.



# Frankismoaren biktima zaldibartarrei omenaldia egingo diete urriaren 23an

Udalbatza osoaren babesagaz antolatu dute domekako oroimen eta omenaldi ekitaldia, lehenengoz

**ZALDIBAR** Itsaso Esteban Frankismoan hildako zaldibartarrei omenaldia egingo diete, lehenengoz, domeka honetan. Horrela erabaki zuten udalean ordezkaritza daukaten hiru alderdiek, maiatzaren 26ko osoko bilkuran, aho batez.

Omenaldira gonbidatu dituzten senitartekoak eta herritarrak hartzeko, karpa bat ipiniko dute udaletxe plazan, eta bertan burutuko dute domekako ekitaldia, 12:00etatik aurrera. Lehenengo, Carmen Sampedro eta Iñaki Mendio-

lagarai zinegotziek hartuko dute berba, eta ondoren, bideo emanaldi bat eta Garikoitz Sarrigarte herrikidearen bertsoak izango dira. Dantzarien emanaldiaren ostean, Arantza Baigorri alkateak hartuko du hitza, eta lore-eskaintza egingo

dute udaletxe plazako ikurrinaren azpian ipiniko duten oroitarrian. Zaldibarren faxismoak hildako guztien izenak jasoko ditu oroitarri horrek.

Urriaren 25ean 80 urte beteko dira 36ko altxamendu faxistan Zaldibarko lehenengo biktima hil zela, eta horregatik erabaki dute omenaldia domeka honetan egitea. Eibarko Amuategi batailoiko kide izan zen Primo Bastida Garitagoitia milizianoa izan zen lehenengo hildakoa; Irunen faxismoaren kontra borrokan jasandako zaurien ondorioz hil zen, 26 urte zituela. Frontean, fusilatuta, bonbardaketan, edo erbestean hildakoak eta desagertutakoak hartuko dituzte, domekan, gogoan. Zaldibarko 28 andra, gizon eta ume.

Oroimen ekitaldia egitea eta oroitarria ipintzea, "belaunaldi gazteek gure historiaz galde dezaten bultzatzeko" modua izatea espero dute ekitaldiaren antolatuzaileek. Domekako omenaldia testigantzak jasotzeko akuilu izatea ere espero dutela esan du Baigorri alkateak.

**Adituekin perretxiko bila Oletara joateko aukera, zapatuan**

**ATXONDO** J.D.

Atxondoko Mikologia Taldeak eta Elorrioko Iturizoro Elkartearteak antolatuta, adituekin perretxiko bila joateko aukera dago zapatuan. Ondoren, batutako perretxiko eta onddoekin erakusketa egingo dute domekan.

Zapatuan, 08:00etan, irtengo da autobusa Elorrioko probaleku zaharretik, eta 08:15ean Apatako frontoitik. Oletara eta inguruetara joango dira.

**Zapatu arratsaldean sailkatu egingo dituzte, eta domekan erakusketa antolatuko dute**

Arratsaldean, perretxiko mota desberdinak sailkatu egingo dituzte. Aurten, Atxondoko Mikologia Taldeari dago-kio lan hori egitea.

Batu eta sailkatutako alee-kin erakusketa antolatuko dute domekan. Elorrioko kiroldegian izango da, 12:00etatik aurrera.



Arantza Baigorri alkateak eta lau zinegotzik egin zuten agerraldia, domekako ekitaldia aurkezteko.

## Hilarion Sarrionandiaren arrastoaren atzetik

Ondare jardunaldietako ibilbidea egingo dute etzi eta hurrengo zapatuan, Garai eta Iurreta lotuta

**GARAI** Markel Onaindia Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu eta Gerediaga elkarteak koordinatzen dituen Ondare Jardunaldietan, herritarren-tzat ibilbideak prestatu dituzte, eta domeka honetan zein hurrengo zapatuan Garai eta Iurreta lotuko ditu ibilbideetako batek. Herri bietako plazak

lotuko dituzte ibiltariak, eta protagonista nagusi bi egongo dira ezagutzeko, Pedro Hilarion Sarrionandia garaitarra eta Maria del Carmen de Gurtubay y Alzola Iurretako lehen markesa.

Sarrionandia abade frantziskotarraren arrastoari jarraitu ahaliko diote, beraz, partaideek.

Joseba Sarrionandia idazlearen *Moroak gara behelaino artean?* liburuan agertzen dira abadearen inguruko hainbat istorio. XIX. mendearen amaiera aldera Marokora joan zen misioetan, eta bertan, Arrifeko amazig hizkuntzaren lehenengo gramatika sortu zuen. Hizkuntza horren lehen liburutzat hartua da gaur egun.

Domeka honetan, 10:00etan izango da ibilbidea, gaztelaniaz. Euskarazkoa datorren zapatuan izango da, 29an, 16:00etatik aurrera -Iurretako plaza da topagunea-. Parte hartzeko erre-serba Gerediaga elkarteak 673 005 981 telefonoan egin daiteke.

## Herriko jendeagaz bete dituzte hipopresibo saioak

Azaroko hiru zapatutan egingo dute ikastaroa

**IZURTZA** Joseba Derteano Ariketa hipopresiboak egiteko ikastaroa beteta dago. Udaletik deialdia egiterakoan, taldea herriko jendeagaz osatu ezik, herritik kanporakoei ere izena emateko aukera irekiko zitzaie-la aurreratu zuten. Azkenean, ez da horren beharrik egon. Herriko jendeagaz bete dute 10 bat laguneko taldea. Azaroaren

12an, 19an eta 26an izango dira klaseak.

**Zuzenketa ordutegian**

Ondare jardunaldien ibilbidea egingo dute bihar, Izurtzan hasita Mañariara. Euskarazko ibilbidea 11:00etan hasten zela jarri genuen joan zen asteko albistearen baina 10:00etan hasiko da Izurtzako plazatik.

**Magdalena Gozotegia**  
ARTISAU-GOZOGINTZAKO LANTEGIA

*Noma Santa eguneko gozokak*

- Santu-hezurak
- Panellets-ak
- Kruxpetak

Fray Juan Zumarraga, 3 · DURANGO · Tel.: 946 810 929

**Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.**

**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

**Parte hartu**, galderak eginez, erantzunak lortuz.

**Pertsonalizatu**, zure herria aukeratuz.

**DESKARGATU DOAN !**



**anboto.org**  
**MUGIKORREAN**

Available on the App Store | Get it on Google Play





## **KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO**

*Durangoko herrigunean*

*Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak*

*Hiriko txaletak*

*Oiz mendira begiratokiak*

*Leku zabalak*

***Etorri  
ikustera!***

**ZARATE ELEXPE**  
E R A G I L E A K

[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)  
Tel.: 946 816 673

**Kontsultatu beste aukerak Iurretan, Elorrion eta Durangon**



# Bittor Garaigordobil gotzain ohia omenduko dute 101. urtebetetzean

Asteon 101 urte bete ditu Bittor Garaigordobil Urkiolako gotzain ohiak



'Hordago txikira' dokumentala burutu dute Garaigordobil bizitza eta beste hainbat misiolariarena ardatz hartuta

**ABADIÑO** Aimar Esteban Bittor Garaigordobil gotzain ohia 1915eko urriaren 17an jaio zen, Abadiñoko Amaitermin baserrian. Munduko hirugarren gotzainik nagusia da, gaur egun, 101 urte gaz. Bere urtebetetzea ospatzeko hainbat omenaldi egingo dizkiote asteburuan. Ekuadorren bizi izandako misiolari honen bizitzari buruzko *100 años de solidaridad y libertad* liburua argitaratu zuten iaz, 100 urte bete zituenean, eta *Hordago Txikira* dokumentala

aurkeztuko dute, aurten. Bittor Garaigordobil bizitzatik abiatuz, dokumentalak Ekuadorren ibilitako euskal misiolarien istorioa kontatzen du. 1948an abiatu ziren lehen zortzi misiolarien artean zegoen Garaigordobil. 34 urtez izan zen misioan behardunez laguntza eskaintzen. 1964ko urtarrilaren 30ean, Ekuadorreko Babahoyo katedralean ordenatu zen gotzain.

Lorea Pérez de Albenizek eta Goiuri Aldekoa-Otalorak *Elizbarrutietako Misioak*-en enkar-

guz burutu dute dokumentala. Urriaren 22an, Urkiolan egingo dute lehenengo emanaldia, senideentzat. Urriaren 23an, eguerdian Garaigordobil omenez egingo den eukaristiaren ondoren ere egongo da *Hordago Txikira* ikusgai. Estreinaldi orokorra Bilboko Bizkaia Aretoa izango da, azaroaren 16an. Gasteizen eta Donostian ere aurkeztu gura dute dokumentala, eta proiektuan parte hartu duen ETBren bitartez ere ikusi ahal izango da.

**Goiuri Aldekoa-Otalora**  
'Hordago txikira'  
dokumentalaren ekoizlea



**"Elizari buruzko beste ikuspegi bat daukat dokumentalaren ostean"**

**Nolakoa da Bittor Garaigordobil? Zein da beragaz daukazun erlazioa?**

Pertsona oso ona da, ongia egiten duten horietarikoa. Beti besteengan arduratzen dena eta guztion ona bilatzen duena. Zentzuduna eta oso inteligen-  
tea da, ezagutza eta bizipen asko dituen pertsona. Nahiz eta nik nagusi ezagutu dudana, eta nire erlazioa batik bat Urkiolari lotuta dagoen, bera da Urkiola.

gabiltza. Denbora honetan, jende askok parte hartu du dokumentalean. Vatikanotik, Barandiaran Fundaziotik, Loiolatik eta filmotekatik irudiak eskuratu ditugu. Lan asko eduki dugu irudi guztiak lortzen. Dokumental honek duen altxorretariko bat misiolariak Ekuadorrera heldu zireneko irudiak dira, orain arte argitaratu gabekoak. 40ko hamarkadako horrelako irudiak izateak balio handia dauka guretzat.

**Noren ideia izan zen dokumentala grabatzea?**

Nik aspaldi neukan buruan berari buruzko erreportajeren bat edo bideo txikiren bat egitea. *Elizbarrutietako Misioak*eko kideek zerbait egitea gura zuten, eta guk dokumentala egitea planteatu genien. Beraiek izan ziren lana egitea enkargatu eta bultzada eman zigutenak.

**Zenbat denbora eman du dokumentala prestatzeak?**

Otsailean hasi ginen proiektuagaz, eta Urkiolako aurkezpenerako azken irudiekin

**Pertsonalki, zer ikasi duzu dokumental honeguz?**

Batik bat elizari buruzko beste ikuspegi bat. Alde guztietan denetariko jendea dagoela. Elizatik kanpo gaudenok beti izan dugu honi buruzko irudi ezkor bat, eta konturatu naiz badagoela jendea klise horretatik aldentzen dena. Jende oso jatorra ezagutu dut, oso langilea, eta beharrezana duten pertsonetako izugarri arduratzen dena. Honen eredu garbia Bittor bera eta beragaz lan egin duen taldea izango litzateke.

## Quintairos erruduntzat jo du zinpeko epaimahaiak

**ABADIÑO** Itsaso Esteban 2014ko abenduaren 10ean Amelia Rodríguez amaginarreba eta Mari Luz Alejo emaztea hiltzeaz akusatutako Benito Quintairos abadiñarra erruduntzat jo dute zinpeko epaimahaiko bederatzi kideek, aho batez. 43 urteko espetxe zigorra eskatu dute Benito Quintairosentzat, eta 300.000 euroko kalte-ordaina kaltetuentzat. Berria egunkariak atzo jakitera eman zuenez, zinpeko epaimahaiak aintzat hartu du akusazioek larrigarritzat aurkeztu zuten senidetza eta azpikeriaz jokatu izana.

Asteartean hasi zen Quintairosen aurkako epaiketa, Bizkaiko Probintzia epaitegian. Atzo eman zuten jakitera zinpeko epaimahaiaren erabakia, eta orain, epailearen esku egongo da akusatuari zigorra ezartzea.

## Gazteak bizikidetzaz jarduteko egitaraua

**ABADIÑO** Aimar Esteban Abadiñoko Udalak eta Gaztediaren Euskal Kontseiluak Bake Ekimenak programa antolatu dute. Hamazortzi eta hogeita hamar urte bitarteko gazte abadiñarrak gatazkari buruz gogoeta egitera bultzatu gura dituzte programa horren bitartez. Bakeaz eta bizikidetzaz hausnartu eta berba egitera gonbidatuko dituzte urriaren 29tik azaroaren 11ra bitartean burutuko duten tailerreen parte hartuko duten gazteak. Giza eskubideen defentsa eta gatazkak konpontzeko modu baketsuak hartuko dituzte tailerren ardatz.

Txangoak, eztabaida saioak eta tailerrak egingo dituzte programa honen barruan. *Bake Ibilbidea* izeneko txangoagaz hasiko dute programa, urriaren 29an. Izena emateko, 944 669 420 telefonora deitu.

## Menpekotasunak sortzen dituen beldurrak gaindituz

Ikastaroa barikuro emango da, 16:30ean hasita

**BERRIZ** M.Zuazubiskar Gaur hasita, bi hilabetez, menpekotasuna duten pertsonen zaintzaileentzat ikastaro berezia antolatu du Berrizko Udalak.

Herrian menpekotasuna duten pertsona ugari daudela jakinda, eta gehienak familiarrekoren baten zaintzapean daudenez, hauentzat ikastaroa antolatzea beharrezkoa dela iruditu zaio udalari.

Ikastaroaren helburua menpekotasuna duen familiarreko horregaz daudenean dituzten sentimendu, emozio eta beldur horiei aurre nola egin irakastea da.

Gainera, zaintzari aurre egiteko estrategia ezberdinak erakutsiko dituztela jakitera eman dute.

Lehen saioan ikastaroaren aurkezpena bakarrik egingo dutela jakitera eman duten

arren, hainbat gai jorratuko dituztela adierazi dute prentsa oharrean. Esaterako, tristurari, depresioari eta haserreari aurre

Gaurtik, urriaren 21etik azaroaren 25era emango dute ikastaroa Berrizko Kultur Etxean

rre egiteko teknikak erakutsiko dituzte. Horrez gain, antsietatea hobetzeko zenbait teknika ere eskainiko dituzte.

**Saioak barikuetan**

Gaur hasi eta azaroaren 25era arte iraungo duen ikastaroa sei astez jarraian emango dute.

Berrizko Kultur Etxean eskainiko dituzten saioek bi orduko iraupena izango dute, 16:30ean hasi eta 18:30era arte.

## Zapatuero programan parte hartzeko izen-ematea, irekita

**MALLABIA** Aimar Esteban Gazte eta umeen aisialdirako eskaintza berria jarri du martxan Mallabiko Udalak. Herriko gazteek ekintza hezitzaileetan parte hartzeko aukera izango dute hileko azken larunbatetan. Jolas kooperatiboak, tailerrak, txangoak, dantzak, eskulanak, herri kirolak eta abar egingo dituzte programa honen barruan.

Azaroaren azken larunbatean hasiko dira ekintzak Mallabiko Kontsejuzarrean. 5-11 eta 12-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dagoen programa honetarako izen-ematea azaroaren 4ra arte irekita egongo da, Kultur Etxean.

Ume bakoitzeko 20 euro ordaindu beharko dira maiatzeko azken larunbatera arte iraungo duen Zapatuero aisialdi programan parte hartu nahi izanez gero.



# Kirikiñoren lana azalduko dute, bere jaiotzatik 150 urtera

Hilaren 27rako Kirikiñori buruzko berbaldia iragarri dute Mañariko Udalak eta Gerediagak



Kirikiño omentzeko monumentua dago Mañarian.

**MAÑARIA** Markel Onaindia Ebaristo Bustintza *Kirikiño* idazle mañariarra jaio zenetik 150 urte beteko dira urriaren 26an. Hori dela eta, berbaldi bat antolatu dute udalak eta Gerediaga elkarteak, hilaren 27an burutuko dena Errose Bustintza kultur etxean, 19:00etatik aurrera. Xabier Altzibar EHUko irakasle eta ikerlaria, eta Eneko Bidegain Mondragon unibertsitateko irakaslea eta idazlea izango dira *Kirikiñoren* berri emango dutenak.

Idazlea izateaz gainera, kazetaria ere bazen *Kirikiño*, eta hain zuzen ere, bigarren ezauzgarri horren inguruan berba egingo dute Altzibarrek eta Bidegainek. Lehen Mundu Gerrako kronikari edo kontalari izan zen mañariarra. “Kanpoan ez ezik, hemen sortarazitako egoera kontatzen zuen, ikuspegi abertzale eta ekonomikotik”, azaldu dute Gerediagakoe.

**Ezohiko idazlea** Herriko jendearen esakera eta berbak erabiltzen zituen *Kirikiñok* bere idazlanetan, eta horrek irakurleekiko hurbiltasuna eman zion. Ezohikoa zen, gainerako idazleekin alderatuz gero.

Horiek eta beste hainbat istorio kontatuko ditu Altzibarrek, Mañariko kronistaren inguruan azterketa eginga baitu. Bidegainek, oster, Mundu Gerran Euskal Herrian zegoen egoeraz berba egingo du.

**Andrearen gutuna** Bestalde, idazlearen emazte Basilia Bustintzak Gerediaga elkarteari bidalitako gutun bat ezagutaraziko da ekitaldian. 1966an herrian egindako omenaldian parte hartu zuen Gerediagak, eta horretarako idatzi zuen gutuna *Kirikiñoren* andreak, bere gizonaz berba egiten zuena.



Iurretako elizpean zegoen desanexioa oroitzeko plaka.

## Desanexioa gogoratzeko plaka lapurtu dute

**IURRETA** Jone Guenetxea Joan zen urriaren 9an, Iurretako elizpean herriaren desanexioaren 25. urteurrena gogoratzeko ikurrei eraso egin zieten. Elizako pastoral kontseiluak jakitera eman duenez, elizpeko sarrerako mahaia zulatu egin zuten. Ondoren, Iurretako Udalak zementuagaz bete zituen zulo horiek. Bestalde, desanexioaren inguruan jarri zuten

metalezko oroigarria lapurtu egin zuten.

**“Zentzurik bako ekintza”** Pastoral kontseiluak penagaz hartu du albiste. “Zentzurik bako ekintza da. Herriko ikur bat txarto erabili dute”. Ildo horretatik, elizaren ordezkariak plaka berriro jartzeko eskaera egin diete Iurretako Udaleko arduradunei.

## Zerga eta tasak ez dituzte igoko datorren urtean

**IURRETA** A.B. 2017ari begira, berean mantenduko dituzte zerga eta tasak Iurretan. Halaxe erabaki dute, aho batez, udalbatzarrean. Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez, “udalaren egoera ekonomikoa ez da txarra momentu honetan, eta Udalkutxara dirua bueltatu beharrean izango garen arren, zerga eta tasak ez igotzea erabaki dugu”. 2016an %0,21eko igoera izan zuten zerga eta tasek Iurretan. Alkateak gogoratu du Ondasun Higiezin Zergan (OHZ) izandako aldaketak ere izango duela eragina: “Katastroaren eguneraketak OHZn igoera eragingo du datorren urtean”.

## Suteen prebentzio programagaz jarraituko dute

**IURRETA** A.B. Bakarrik edo beste pertsona nagusi batzuekin bizi diren 80 urtetik gorako pertsonen giza beharrak antzemateko eta etxeko suteen prebentziorako, bigarren fasea abiatuko du Iurretako Udalak. Doako zerbitzu honen berri emateko, gutunak bidaliko ditu udalak eta, ondoren, akreditatutako teknikariak joango dira bisitan, arriskuen azterketa bat egiteko. 63 etxebizitza babestuko dira 2. fase honetan. Aurretik, 152 etxebizitza babestu dira. Zerbitzu honen bitartez, sutea izateko arriskua gutxitu egiten da, azaldu dutenez.

### SEI HANKAKO MAHAIA

**GOIZTIDI DIAZ**  
EAJ



### Eraiki Euskadi!

Zein pozgarria dan norbaitek bere konfiantza emoten deustuean. Egutero egutero egindako lanaren ondorioz jasotako konfiantza gasolinarik hoberena da indarrez lanean ekiten jarraitzeko. Irailaren 25a egun garrantzitsua izan zan Euskadirentzat. Euskaldunok gure eskuetan geneukan aukera demokratikoki zer nahi genuen esateko, bakoitzak bere aukera hautatzeko. Eta Euskadik hitz egin dau.

EAJk urte asko daramatza lanean Euskadi sozialago, parekatuago eta hobe bat lortzeko. Beti ere, norabide desberdinetatik sortutako sasi guztien gainetik joanda, bere proiektua aurrera eramateko gai izan da, eta igande hartan, jaso daitekeen saririk hoberena jaso genuen. Hain zuzen ere, 300.000tik gorako hautesleen konfiantza, Durangon 6.049rena, konkretuki.

Baina hor ez da amaitzen EAJren erronka, ez noski. Igande hura abiapuntu berri bat baino ez da. Batzuk beren gelditasunean eta beste batzuk burutazioetan murgilduta dauden bitartean, EAJk Euskadi hobetzen jarraituko du, Euskadik Europako onenen artean egoten jarrai dezan. Ez dugu zalantzarik gure helburuen inguruan. Argi daukagu zer eta nor izan nahi dogun, erabakitze eskubidea dogu, eta horren alde egingo dogu lan.

Ez da ez edonolakoa jaso dogun konfiantza, eta argi euki dezatela berba hutsetan galtzen diren guztiek ez dogula huts egingo, ez diegu euskaldunei huts egingo. Euskaldunon aberria Euskadi da, eta Euskadik bere lekua merezi du munduan.

Orain gogor ekin behar diogu lanari Euskadi eraikitze. Eskerrik asko zuen konfiantza emoteagatik, eskerririk asko guztioi! Gora Euskadi askatuta!

### IRITZIA

astekaria@anboto.org  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**  
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

### DURANGALDEA ASTEON

## Bilboko portura doaz Garaiko nagusiak

**GARAI >** San Migel nagusien elkarteak irteera kulturala antolatu du biharko, Bilboko portura. 09:00etan irtengo dira Garaiko plazatik, eta heltzean, bisita gidatua edukiko dute portuan.

Bisitaldia eta gero, Urdulizen bazkalduko dute, eta arratsaldean Plentziara joango dira, lasaitasunez kostaldeaz gozatzera.

## Mikromatxismoak aztergai, Abadiñon

**ABADIÑO >** Abadiñoko Udalak egitarau pilotu bat jarriko du martxan emakume talde batek gizarteko mikromatxismoak aztertu ditzan, eta horiei aurre egiten ikas dezan. Ekimena 30-55 urte arteko emakumeei zuzenduta dago. Egitaraua ezagutarazteko, aurkezpenak egingo dituzte urriaren 26 eta 27an, Zelaieta eta Traña-Matienako eskoletan, 16:45ean.

## Mangamoren 14.000 bisitari jaso ditu aurten

**ZORNOTZA >** Mangaren eta kultura japoniarraren inguruko Mangamore jaialdiaren gainerako balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Aurten, ia baino 800 bat bisitari gehiago etorri direla kalkulatu dute, 14.000 lagunetik gora. Euskal Herriatik ez ezik, Katalunia, Burgos, Galizia, Kantabria, Madril, Andaluzia, Zaragoza, Valentziatik... etorri dira.





**Eneritz Iza** | ITG Taldeko lehendakaria | Zeanuri, 1979

**> BERBAZ** Aitziber Basauri

Durangarrek euren egunerokotasunean, eta batik bat erosketak egiterakoan, dituzten hizkuntza ohiturak ikusteko ikerketa soziolinguistikoa egin du ITG Taldeak. Kaleratutako datuen arabera, Durangon %20,7k soilik darabil euskara kalean. 890 inkesta egin zituzten —743 kalean, eta 147 on-line— 2016ko ekainaren 13tik uztailaren 20ra bitartean. Durangoko Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza izan dute lan honetarako.

Durangarren %20,7k baino ez darabil euskara kalean. Ezagutza, berriz, %60-70 artekoa da. Harritu egin zaituztete datu hauek?

Kontua da askok ezagutzen dutela euskara, baina gero, erabili, gutxik erabiltzen dute. Horren arrazoiak ezagutu gura genituzke, gero datuok zelan hobetu ikusteko. Jakitea eta ez erabiltzea... atentzioa ematen du. Gainera, aldea handia da.

**Zergatik alde hori?**

Ohiturak dira. Baliteke gure artean komunikatzeko euskara erabiltzea, baina, denda baten sartzean, badaezpada, lehenengo berba gaztelaniaz esateko ohitura dugu. Hartara, denok ulertuko dugu. Bai dendariak, bai bezeroak, badakite euskaraz. Hori da errealitatea. Baina gaztelaniara jotzen dugu.

**2013ko azaroan egindako I. Inkesta Soziolinguistikoa emandako datuekin alderatu dituzue azken hauek.**

Bai. Hala ere, erabilpenak desberdinak dira. 2013an egindako inkesta hura Durangoko merkatariei zuzendutakoa zen, eta oraingo hau bezeroei begirakoa da. Beraz, ikuspuntuak ere desberdinak dira.

**Zein izan da II. Ikerketa Soziolinguistikoaren helburua?**

Soziolinguistika klusterrak Euskal Herriko Hizkuntzen Kale Erabileraren VI. Neurketa argitaratu zuen 2011n. Ordukoak dira EUSTATEk Durangorako argitaratutako azken datuak ere. 2013an, berriz, Durangoko merkatariei egindako I. Inkesta Soziolinguistikoa argitaratu genuen, merkatarien kontzientziatze maila ikusteko. Oraingoan, bezeroengana jo dugu. 2011tik hona aldaketarik egon den ikertu dugu. Iku- si dugu ez dela aldaketa esan-



## “Euskararen erabilera sustatzeko politikak garatu behar dira”

Durangarren hizkuntza ohiturak ikusteko ikerketa soziolinguistikoa egin du ITG Taldeak.

“**Bai dendariak bai bezeroak badakite euskaraz. Baina, gaztelaniara jotzen dugu**”

guratsurik egon. *Salerosketak Be, Euskaraz* kanpainak duen eragina ere ikusi gura izan dugu. Nolakoa garapena dagoen ikustea da helburua. Durangoko Euskara Zerbitzuagaz batera gabilta, eta beraiei ere interesatzen zaie jakitea egiten diren politika edo ekimenek eragina duten ala ez.

**Eta badute eraginik?**

Ez nuke jakingo erantzuten. Zenbait tokitan, euskara erabiltzen ez dugula-eta, jendea kontzientziatzen ari dela uste dut. Beste kontu bat da hori aldatzeko gogorik dugun ala ez.

**Inkestatuen %46,4k ezagutzen du ‘Salerosketak Be, Eus-**

**karaz’ proiektua, edo zerbait entzun du horretaz. Nola balaratzen duzue hau?**

Guretzat datu positiboak dira, kontuan hartuta nolako ekimena den, eta ez dugu askorik iragartzen: zuek egindako zabal- kundearen bidez, eta dendetan jarritako pegatinen bidez ematen da ezagutzera. Gainera, batzuek ez dute izenez ezagutzen, baina badakite ipad bat zozkatzen dela. Hala ere, ekimena ezaguna izan dadin, dendariak inplikatu egin behar dira. Eta proiektu honetan sinesten badute, bezeroen artean zabalduko dute. Batzuetan, lanpetuta daudelako, edo beste arrazoren bategatik, ez da ondo zabalitzen. Txartela ematen da, baina bezeroak ez daki zertaz doan ere. Dena den, lehen baino askoz gehiago ezagutzen da orain. Gure helburua, berez, ez da ekimena bera ezagutzera ematea, apurka-apurka euskara egiten joatea baizik. Dendariak saldu beharko lukete proiektua, baina, ez dute interes askorik horretan.

“**Durangon salerosketak gaztelaniaz egiteko ohitura dago**”

**Euskararen erabilera bultzatzeko politikak behar direla erakutsi du neurketak. Zer egin beharko genuke herritarrok edota administrazioak?** Datuak direnak dira; oso baxuak dira. Euskararen erabilera sustatzeko politikak garatu behar dira. Hori erakusten dute datuek. Hala ere, bakoitzak bere arloan ikusi beharko du zer egin. Zerbait egin beharra dagoela ikusita, guk zenbait proiektu ipini ditugu martxan. Adibidez, *Salerosketak Be, Euskaraz* proiektua. Euskaraz egiten ahaleginduz gero, zozketan parte hartzeko aukera ematen dugu. Hala ere, gauza asko egin daitezke, bakoitzak bere esparruan.

**Egin berri duzuen ikerketa honetan erosketen esparrura mugatu zarete. Ildo horretatik, bezero-merkatarierako euskararen erabilera %10-30era mugatzen da Durangon. Eta %9,2k baino ez dio esaten lehenengo hitza euskaraz bezeroari.**

Kontziente gara horrela dela. Dendara goazenean, euskaraz jakinda ere, zergatik egiten dugu gaztelaniaz? Ohitura kontua delakoan nago. Hori da errealitatea, eta EUSTATEk ere baieztatu izan du hori: Durangon, eta Durangaldean ere bai, erosketak gaztelaniaz egiteko ohitura dago. Esparru horretan lanean hasi behar genuela ikusi genuen.

**Esparru honetan, zeintzuk dira etorkizunera begirako erronkak?**

*Salerosketak Be, Euskaraz* ekimenagaz jarraitzeko asmoa dugu. Aztertutako beharko dugu nola bideratu. Durangoko Udaleko Euskara Zerbitzua ere jarraitzeko prest dago, gainera.



# Hasi da Begira Photo jaialdiaren seigarren edizioa, 'basoa' gaiaren inguruan

Argazkigintza garaikideko erakusketak eta solasaldiak izango dira, besteak beste, aukeran

**> ARGAZKIGINTZA** I. Esteban Azaroaren 13ra arte, argazkigintza garaikideko erakusketak, solasaldiak eta aurkezpenak ekarriko ditu Begira Photo jaialdiak Durangaldera. Atzo, *El lugar de los árboles* erakusketak inauguratu zuten Durangoko Museoan; eta hiru argazki liburu ere aurkeztu zituzten.

Leo Simoes jaialdiaren zuzendariak aurkezpenean azpimarratu duenez, "politikoagoa" da argazkigintzari buruzko jaialdiaren aurtengo edizioa: gizakiaren eta naturaren arte-

ko harremanez pentsaraztera bultzatu gura dute ikuslea, eta "naturarekiko errespetua sustatzea". Horregatik aukeratu dute *Basoa* gaitzat. Jaialdiaren hurrengo bi edizioetan ere naturari loturiko gaien inguruan jardungo direla aurreratu du Simoesek: "Harria, mendia eta ura izango dira hurrengo urteetako gaiak". "Inkontinentzia bisualaren garaiotan, Begira jaialdiak irudien atzean dagoen pentsamenduari eta eduki interesgarriei egin gura die tokia", Simoesen berbetan.



Imanol Marrodán argazkilaria, Leo Simoes jaialdiko zuzendaria eta Garazi Arrizabalaga Museoeko zuzendaria.

Garazi Arrizabalaga Durangoko Museoako arduradunak azpimarratu duenez, 40 herrialde-tako argazkilariek parte hartuko dute Begira Photo jaialdiaren seigarren edizio honetan. Durangoko Museoan nazioarteko

lau argazkilariren lana egongo da ikusgai azaroaren 13ra arte: Misha de Ridder, Regina Anzenberger, Pablo Castilla eta Ellen Bornkessel argazkilarien basoari buruzko ikuspegiak biltzen dituen *El lugar de los árboles* erakusketa kolektiboa.

dean eta Plateruenean ere ipini-ko dituzte *Arbolada* erakusketa-ko argazkiak, kalean.

## Frozen trees, Zornotzan

Imanol Marrodán argazkilaria bilbotarraren *Frozen trees* erakusketa, bestalde, Zornotzako Zelaieta zentroan egongo da ikusgai. Bost urtean Anboto mendian burutu duen egitasmoaren parte dira erakusketa horretako argazkiak. Anboto magiaz eta mistizismoz beteriko lekua dela, eta ondare horren balioa azpimarratu gura izan duela azaldu du argazkilaria aurkezpenean. Besteak beste, Huescan eta Foto España jaialdian erakutsi izan du Marrodanek *Frozen trees*, baina dio, "bertako paisaia hain propioa izanda, ilusio berezia egiten dit Durangaldean erakustek".

## Esparrua zabaltzen

Duela sei urte Durangon sortutako argazkigintza garaikidearen inguruko jaialdiak Durangaldeko beste leku batzuetan ere izango du presentzia, gainera, aurtun. Abadiñon eta Iurretan ere ikusgai izango da Begira. Iurreta eta Durango arteko zubian tamaina handiko basoen hainbat irudi ipini dituzte gaur, eta bertan egongo dira jaialdiak irauten duen egunetan. Abadiñoko Errota kultur etxean eta Durangoko Museoan kanpoal-



Besteak beste, Abadiñon eta Iurretan ere ikusgai daude jaialdiko hainbat argazki.

**> BERTSOLARITZA** I. Esteban Mungian jokatu zuten, joan zen zapatuan, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren udazkeneko faseko lehenengo saioa, eta 531 puntugaz, Miren Amuriza berriztarrek irabazi zuen kanporaketa saio hori. Finalaurrekoan aritzeko txartela eskuratu du, beraz, Amurizak.

Durangaldeko beste bi bertsolarik ere parte hartu zuten Mungiako saioan, Aitor Bizkarrek eta Garikoitz Sarriugartek, hain zuzen ere. Bigarren postuan sailkatu zen Aitor Bizkarrak abadiñarra, 474.4 puntugaz; eta laugarrena izan zen Garikoitz Sarriugarte zaldibartarra, 440 puntu eskuratu.

Hurrengo kanporaketetako emaitzen arabera jakingo dute Bizkarrek eta Sarriugartek Bizkaiko Bertsolari Txapelke-

tako finalaurrekoan aritu ahal-ko diren ala ez.

Asteburu honetan jokatuko dituzte txapelketaren barruko beste bi kanporaketa. Sestaoko musika eskolako aretoan izango da bata, urriaren 22an, 17:30ean. Eneko Abasolo *Abar-kas* iurretarrak parte hartuko du kanporaketa saio horretan, eta beragaz arituko dira Arrate Illaro, Asier Galarza, Inazio Vidal, Josu Landeta eta Peru Vidal bertsolariak.

Urriaren 23an, 17:30ean, Igoerreko Lasarte aretoan izango den saioan ere egongo da Durangaldeko bertsolaritzaren ordezkariak: Beñat Ugartetxea mallabitarrak parte hartuko du saio horretan, Arkaitz Zipitria, Iñaki Iturriotz, Julen Erezuma, Malen Amenabar eta Paule Ixiar bertsolariek.

# Txapelketaren finalaurrekorako txartela eskuratu du Miren Amurizak

Bizkaiko Bertsolari Txapelketan aurrera jarraituko du berriztarrek



Miren Amuriza kantuan, eta bigarren sailkatu zen Aitor Bizkarrak abadiñarra, pentsakor.



# Hiru musikarik Amurizaren poesia interpretatuko dute, Berrizen

Fran Lasuen, Jose Luis Canal eta Joe Gonzalezen emanaldia izango da, gaur



Emanaldi bakarra egin dute orain arte: 2015eko maiatzean Zornotzan eskaini zuten, Amurizaren jaioterrian.

**> MUSIKA** Itsaso Esteban Xabier Amurizaren bertsoak eta olerkiak ardatz dituen *Torreburutik mundura* izeneko emanaldia eskainiko dute,

gaur, 22:00etan, Berrizko Kultur Etxean. Fran Lasuen eta Joe Gonzalez musikari zornotzarrek eta Jose Luis Canal bilbotarrak osaturiko hirukoteak

eskainiko du Amurizaren letratan oinarrituriko kontzertu hori. Letra oso ezagunei zein ezezagunagoak direnei doinua ipini diete *Torreburutik mundu-*

*ra* ikuskizunerako. Kantatu eta biolina joko du Fran Lasuenek, klarinetean eta saxoan arituko da Joe Gonzalez, eta pianoa joko du Jose Luis Canalek.

Amurizaren laguntzagaz, Lasuenek burutu zuen ikuskizun honetarako letren hautaketa. “Duela ia bi urte enkarguz etorritako lana izan zen, eta oso gustura egin nuen: beti da plazerra eta ikasbidea Amurizagaz lan egitea”, dio. Xabier Amurizaren testuen “mikroantologia” hori osatu, eta “ikuskizun oso berezia” sortu dute musikariek.

Xabier Amurizaren letrai doinua ipini diete ‘Torreburutik mundura’ ikuskizunerako

2015eko maiatzean, Zornotzako Eleizetan programaren barruan eskaini zuten *Torreburutik mundura* lehenengoz, eta Berrizko gaurkoa arte ez da emanaldia entzuteko beste aukerarik egon.

## GEURE DURANGALDEA

**AINHOA URIEN**  
Ikaslea



### Publizitateaz, apur bat

Inguru ederrean bizi gara, zer esanik ez, leku magikoa, mitikoa... eta azken aldian tipikoa ere bai. Euskal herritarrei, ez halaberharrez euskaldunei, zuzendutako telebista katean ohikoa izaten da anuntzioetan Durangaldeko parajeak agertzea.

Lagun bati aitu nion behin Euskal Herriak, bere horretan, hau da, hizkuntzarenean, jada ez duela zentzurik. Ipar Euskal Herriaz diharduten anuntzioetan ohikoa izaten da ikurrina eta lauburuak erabiltzea, frantsesez saltzen den bitartean.

Iruditzen zait, mugaren alde batean zein bestean, biziera sinbolikoak prostutitu egin direla; eta horixe, biziera izateari utzi eta sinbolo huts eta hutsal bilakatu direla.

ETBk baserriak erabiltzeak ez du esan nahi nekazarien egoera irribarre batekin marraztu daitekeenik; eta propaganda folklorikoak ez du esan nahi sinbolo horien atzean dagoen herriaren hizkuntzak irribarre egiten duenik. Agian, gure mugak berraztertu beharko ditugu.

Argi dago Euskal Herriaren mugak ez direla euskararenak. Sinboloen bidezko propagandari kasu egiten badiogu Euskal Herria Moskuraino hedatu dezakegu. Eta han goaz Europan zehar, gudari danok, ikurrinan atzean. Hori bai, erdara hutsean; Eroskin erosita baserriak salbatuko ditugula pentsatzen dugun bitartean.

## 13 taldek parte hartu dute Kine lehiaketan

Topazio Films taldeak irabazi du lehenengo saria

**> ZINEMA** Aimar Esteban Hogeita lau ordutan film labur bat osatzea izan zuten erronka, joan zen asteburuan, Zornotzako KineRally lehiaketan parte hartu zuten 13 taldeek. Natura, abentura eta mendiak gaia landu behar izan zuten beraien ikus-entzunezkoetan.

Topazio Films taldeko Nytia Lopezek, Maitane Valenciak, Julen Solaunek, Jon Carrillok eta Markel Suarezek osatutako taldeak irabazi zuen 350 euroko sari nagusia. JJ Produzioak taldeak eskuratu zuen, bestalde, 150 euroko bigarren saria.

Zornotza Aretoan egin zuten, domekan, lehiaketaren sari

banaketa ekitaldia, eta bertan erakutsi zituzten partaideek osatutako lanak. 80 lagun inguru bertaratu ziren ikustera.

Natura, abentura eta mendiak gaia landu behar izan zituzten zinezaleek euren film laburretan

Kine Zinekluba talde zornotzarrak antolaturiko film laburren lehiaketaren bigarren edizio horretara aurkezturiko lanak ere Interneten ikusgai ipini dituzte.

## Durangaldeko seigarren maketa lehiaketa, martxan

Azaroaren 11ra arte eman dezakete taldeek izena

**> MUSIKA** I.E. Azaroaren 11ra arte eman daiteke izena Durangaldeko maketa lehiaketan parte hartzeko. Izena emateko interesa duten musika taldeek [www.ametxgazteria.net](http://www.ametxgazteria.net) webgunean deskargatu dezakete inskripzio orria, eta, besteak beste, hiru kanta aurkeztu beharko dituzte hautaketa prozesuan parte hartzeko.

Izena ematen duten talde guztietatik bederatzi aukeratuko ditu epaimahaiak, eta azaroaren 16an emango dute jakitera zeintzuk diren finalera ailegatuko diren taldeak. Hautatzen dituzten taldeek Zelaieta zentroko kontzertu gelan joko

dute, eta bi sari banatuko ditu epaimahaiak: 1.500 euroko saria jasoko du talderik onena irizten diotenak, eta 500 eurokoa euskarazko kantarik onena aurkeztu duen taldeak.

Zornotzako, Abadiñoko, Durangoko eta Iurretako udaletako gazteria sailek antolatu dute Durangaldeko maketa lehiaketaren laugarren edizioa.

1.500 euroko saria jasoko du talde irabazleak, eta 500ekoa euskarazko kantarik onenaren egileak

**Malmö**  
Khea Ziater

Urriaren 29an, 20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GINEA

**PLATERUENA**

**Durangoko Kafe Antzokia** [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

|                                                                               |                                                                            |                                                                            |                                                                           |
|-------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>JAT ETX EA</b></p> <p>EGUNEKO MENUA</p> <p>IGANDEETAN MENU BEREZIAK</p> | <p><b>URRIAK 23</b><br/>18:00etan<br/><b>AIKO ERROMERIA</b><br/>DANTZA</p> | <p><b>URRIAK 26</b><br/>19:00etan<br/><b>BERBALAGUN</b><br/>AURKEZPENA</p> | <p><b>URRIAK 27</b><br/>20:00etan<br/><b>KANTULAGUN</b><br/>KANTALDIA</p> |
|-------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------|



# OSASUN GIDA



## FISIOTERAPIA

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,  
behea eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

**PABLO ZUBIZARRETA**  
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO  
pzubizarreta@gmail.com

Tel.: 946 550 049  
Mug.: 695 784 963

RPS: 57/16



## PEDAGOGIA

**UGATZ**

**UMEAREN  
GARAPENERAKO  
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotritizitatea,  
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea  
48200 DURANGO

ugatz@hotmail.es

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



## PODOLOGIA

**PODOLOGIA  
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA  
PODOLOGOA**

**AINHOA ELORZA  
PODOLOGOA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio  
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea  
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13



## ESTETIKA

**CA AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

[www.medicinaesteticadurango.com](http://www.medicinaesteticadurango.com)

**Laser berria:**

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,  
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...  
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6  
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09



## OPTIKA

**keinuu** optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.

Arkazar 3  
48240 Berriz  
tel: 946225099

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

[www.keinuoptometriazentroa.com](http://www.keinuoptometriazentroa.com)

RPS: 162/13



## ODONTOLOGIA

**clínica dental hartzklinika**

**B. UNAMUNZAGA  
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea  
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

**J.L. URRETA ZABALO**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hartz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**

PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO  
jon@psikologo.biz - [www.psicologo.biz](http://www.psicologo.biz)

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11



**Urkotxo y los Primos de Riesgo** musika taldea | Elorrio**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Talde berriaren lehenengo diskoa aurkezteko jaia egingo du Urkotxo y Los Primos de Riesgo taldeak, urriaren 28an, Elorrioko Ateneoan. Diskoa egiteko ez dute 'crowdfunding' kanpainarik burutu, eta euren proiektuari "aupada bat" eman gura dioten lagun eta musikazaleei datorren barrikuko kontzertura joanda kolaboratzeko deia egin diete. Musikarekiko zaletasuna partekatzen hiru hamarkada daramatzate Urko Igartiburu eta Jose Manuel Cadiñanos 'Kadi' elorriarrek, eta beraiekin egin du ANBOTOK taldearen eta disko berriaren nondik norakoak ezagutzeko hitzordua. Urriaren 28an, Ateneoan, Miguel Leon taldeko bateria-jotzaileak ezezik, Adolfo Aguadok teklatuan eta Mamen Rodrigok koroetan ere parte hartuko dute. DJ Mimi-ren sasoiagaz borobilduko dute 28ko Ateneoko jaia.

**Zelan sortu da talde berria?**

**Urko Igartiburu:** *Kadi*k eta biok aspaldiko harremana daukagu: elkarregaz hasi ginen jotzen, 1986. urtean. Berak baxu bat eta nik gitarra bat erosi, eta horrela hasi ginen, ahal genuen moduan jotzen. Punkaren eferbeszentzia sasoi bete zen, eta Kortatu, Eskorbuto edo RIP taldeen bertsioak egin genituen.

**30 urtean proiektu desberdinetan ibili zarete elkarrekin?**

**U.I.:** Horrela da, bai, eta denetarikoa estiloak jo ditugu. Gure punki sasoiaren lehenengo taldea Segundo Gobierno izan zen; 90eko hamarkadan, rocka eta bluesa ezagutu genituen, eta María y la Plantación taldean halakoak jotzen genituen. Beti joan gara gure ikuspuntu musikala zabaltzen. Gauza berriak probatu izan ditugu, eze-lako lotsarik barik. Denbora batean bakoitzak bere proiektuak eduki ditugu; nik Eskorbuto gaz eta Tiananmenegaz, *Kadi*k Kúmulo de Limbo taldeagaz... Gero guraso izan ginen, eta azken urteotan ni Mamen Rodrigogaz Puro Chile taldean ibili naiz...

**Urkotxo y Los Primos de Riesgo-n elkartu zarete berriro, lehen bezala, zuen kanten bitartez mezu kritikoa zabaltzeko. Kritiko izanik ere, letrek eta doinuek alaitasuna eta bizigogoa transmititzen dute.**

**U.I.:** Bai, horixe da planteamendua: ez dugu pentsatzen

# “Musika entzutean bezala, sortzean ere ez dugu ezelako mugarik ipintzen”

Urkotxo y Los Primos de Riesgo taldeak lehenengo diskoa aurkeztuko du urriaren 28an, Elorrioren



duguna isiltzeko asmorik, baina ez dugu mezu negatiboa eman gura. Gauzak zelakoak diren ez dugu gustuko, baina ez dugu irtenbide magikorik salduko: norberak hautatuko du bidea. Uste dugu posible dela kritika soziala modu dibertigarri batean egitea. Ez dugu kantatzen politikarientzat, jendearentzat baizik: lagunartean taberna batean berba egiten dugun moduan dihardugu diskoan. Geure buruaz eta egoeraz barre egiten dugu.

**K.:** Jende askok ikusten eta pentsatzen duena esaten dugu diskoan: badakigu gauzak beltz daudela zentzu eta leku askotan, baina ez dugu ezkortasun gehiago transmititu gura.

**U.I.:** Maitasunari edo laguntasunari buruzko letretan ere horixe adierazten dugu: bizitza ederra dela, eta hobe dela umorez hartzea.

**K.:** *Mienten* kantaren sorkuntza prozesua da jarrera horren adibide garbia: lanegun txar baten ostean, eta arin batean afaltzen nengoela, albistegia entzun eta gero, guztiz amorratuta joan nintzen lokalera. Gai-nezka eginda ailegatu nintzen

entsegura, Urko eta Miguel brometan hasi ziren, eta egoerari buelta eman nion. Pasatu egin zitzaidan haserre.

**U.I.:** Hain zuzen, horixe da gure taldearen gakoetako bat: lokalera ondo pasatzera joaten gara. Hirurok elkarrekin itzelean pasatzen dugu, eta horixe da daukagun helburua. *Kadi* haserre zetorren lokalera, eta beste biok ere arrazoi osoa zuela uste genuen, baina, haserretu beharrean, *katxondeoan* hasten gara.

**Diskoan doinu aniztasun handia dago.**

**U.I.:** Bai, izan ere, entzuten dugun guztiak bere arrastoa uzten du gudan, eta atera egiten zaigu gero, kanten bitartez. Beraz ateratzen uztea da gogokoen duguna: entzutean bezala, sortzerakoan ere ez dugu ezelako mugarik ipintzen.

**Denbora da taldeak gaur egun daukan muga nagusia?**

**K.:** Lanagaz eta familiagaz uztartu behar dugu taldea, eta gaztetan baino askoz gutxiago entseatzen dugu. Lehen, egun osoa ematen genuen lokalean.

**Oso presente daude Mamenen koroak diskoan. Zer gehitzen dio taldeari?**

**U.I.:** Mamenek badauka bertute bat: ailegatzeko leku batera, eta ez duzu gura sekula ber-

tatik joan dadin. Ahots-tinbre oso berezia dauka, eta oso ausarta da: ez dauka ahotsagaz edozer egiteko konplexurik.

**U.I.:** Beti gustatu izan zait abeslari eta baxu-jotzaile gisa, eta ohorea da bera ondoan izatea. Zentzu musikala handia dauka.

**Lorentzo Records-en grabatu zenuten diskoa, ezta?**

**U.I.:** Bai, edozein musikariren ametsa da han grabatzea: Aitor Ariñoren moduko pertsona batagaz, Lorentzo Records moduko estudio itzel batean, etxe ondoan zuzeneko grabazioa egitea luxu handia da.

“**Uste dugu posible dela kritika soziala modu dibertigarri batean egitea**”



**URKOTXO  
Y LOS PRIMOS  
DE RIESGO**  
2016



**Ander Gerrikaetxebarria** | Zornotza, 1996 | Zornotza Mendi Taldeko korrikalaria

# “Burugogorra naiz, eta hori aldeko faktore bat da proba luzeetan”

Hiru Haundiak lasterketan hirugarren amaitu du, eta podiumera igo da 20 urteko zornotzarra

► **KIROLA** Joseba Derteano  
**Ander Gerrikaetxebarria** etorkizun oparoa duten Durangaldeko korrikalari gazteen beste adibide bat da. Udan inoiz baino gehiago zaindu da, eta sasoi betean dago. 20 urteaz, hirugarren (11.34.26) amaitu du Hiru Haundiak proba.

**Espero zenuen hain goian ibiltzea?**

Gorbeia Suzien lasterketaren ostean —seigarren sailkapen orokorrean— nire buruaren gain itzelezko konfiantza nuen, eta horregatik, indartsu irten nintzen hasieratik. Hain aurrean amaitzerik ere ez nuen espero, baina banekien lasterketa ona egin nezakeela.

**Aurtengoa bigarren aldia izan duzu parte hartzen.**

Bai, orain urte bi ere parte hartu nuen, 18 urte nituela. Aldi hartako gazteena izan nintzen. Orduan, 13.09ko denbora egin nuen. Beraz, ordu eta erdi pasatxo jaitsi dut aurtun.

**Hasieratik topera irtetea izan zen zure estrategia?**

Bai, hasieratik arin irten nintzen. Gorbeara igotzen, lau laguneko taldetxo bat sortu zen aurrean. Gero, Zigorrek [Iturrieta] harrapatu egin gintuen atzetik. Gorbea bizi igo genuen. Ni entrenamendu laburrag eginda nengoen, batez ere,

eta, horixe izan dut, abiadura bizi hori. Eutsi egin nion gehiago sakatzeko gogoari, indarrak gordetzeko. Gero, Orixol bajatzen, tripetako arazoak izan nituen, eta denbora galdu nuen.

**Probako zatirik handienean bigarren joan zinen, eta azken txanpan gaintitu zintuen Mikel Etxebarriak.**

Bai. Oso nekatuta nengoen. 76 kilometro inguruan elikadura postu bat zegoen, eta bost bat minutuan han geratu nintzen: “Proba lasai hartu behar dut, bestela ez naiz helmugara helduko”, pentsatu nuen. Ahal nuen ondoen elikatu, eta irtetera nindoala, Zigor eta Mikel heldu ziren. Topera irten nintzen, eta Zigor atzean geratu zen. Baina Mikel ni baino indartsuago zihoan, eta Aizkorri igotzen atzean utzi ninduen. Jaitsieran harrapatu egin nuen, baina bidea zuzendu edo goratzen zenean, berriro geratzen nintzen atzean.

**Horrelako lasterketa luzeetan, alderdi mentala ala fisikoa da mantentzen zailena?**

Mentala, duda barik. Buruak hamaika buelta ematen dizkizu. Buruak ahal dela esaten bazu, ahal da, baina bestela...

**Zelan entrenatzen da alderdi mentala?**

Ba, ez dakit. Ni oso burugogor



rra naiz, eta hori nire aldeko faktore inportantea da, batez ere, lasterketa luzeetan.

**Durangaldeak duen etorkizun handiko beste korrikalari bat Aitor Ajuria otxandiarra da. Ezagutzen duzu?**

Aitor makina bat da. Hemen inguruan, inork ez dauka bere abiadura eta potentzia kilometro bertikalean. Urte bi gazteagoa da, eta oraindino hobe dator. Orain hilabete inguru, Axari Trail-en ezagutu nuen, lasterketa laburren Euskal Herriko txapelketan. Bera lehenengo heldu zen, eta ni bigarren. Minutu bi atera zizkidan. Orduan ezagutu genuen elkar. Harrezkero, Gasteizen ikusi izan dut, biok han ikasten dugu-eta [IVEF, Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzien fakultatean dihardu Anderrek].

**Mendi lasterketetan zabilztenontzat ez da entrenatzeko tokirik aproposena.**

Ez, Gasteizen ezin daiteke desnibelik sartu entrenamenduetan. Horixe da txarrena. Asfaltuan kilometroak pilotzen saiatzen naiz. Gero, entrenamenduei desnibela gehitzeko, ia astebururo joan izan naiz Anbotoko kilometro bertikala egitera azken hile bietan.

**Aitor eta zu gazteak zarete, eta maila handian zabiltzate.**

**Urte dezentetan lehia politik izan ditzakezue.**

Ea horrela den! Beragaz lehian banabil, ez da sintoma txarra izango!

**Zigor Iturrieta herrikideak zure atzetik amaitu zuen Hiru Haundiak proba, laugarren tokian. Hartuemanik baduzu beragaz?**

Hiru Haundietan izan dut lehenengo hartueman. Aurretik ez nuen ezagutzen. Gorbea jaitzen, atzetik harrapatu gintuen, eta orduan egin genuen berba lehenengoz.

**Zeintzuk izan dira zure erreferenteak?**

Imanol Goñi, esaterako. Korrikalari handia izateaz gainera, oso pertsona umila iruditzen zait, eta beti hurreratzen zaizu berba egitera. Zornotzan, esaterako, Egoitz Aragon ere badugu.

**Mendiagaz duzun lotura etxetik eta umetatik datorkizu?**

Bai, gurasoek askotan eraman izan naute Pirinioetara: Izaba, Hiru Erregeen Mahaia, Aneto, Benasque, Torla... Horrez gainera, 12 urte nituela, osabak Hiru Haundiak egin zituen, eta bera ikusten joan ginen. Gorbeako azken tartea osabagaz egin nuen. Orduan esan nuen 18 urte egitean neuk ere Hiru Haundiak egin behar nituela.

**Gurasoak eta osaba harro egongo dira zure promesa bete izanaz.**

Bai. Aita neu baino pozago dago. Berak ere ez du sinesten. “Haundia egin duzu”, esaten dit.

**Datorren denboraldira begira, zer helburu duzu? Erronka berriak probatzea?**

Urtarrilean hasiko naiz apiril-maiatzera begira. Egutegia zehaztu barik dut, baina Zegama-Aizkorri edo Travesera —Picos de Europa— ditut buruan, baina ez dut ezer erabakita. Nire helburu nagusia gozatzen jarraitzea da. Emaitzak heltzen badira, ikusiko dugu sakrifizio maila non jarri.

**Aurtun entrenamenduak serioago hartu dituzu? Horregatik eman duzu gorakada?**

Udan entrenamendu serioagoak egin ditut, eta zaindu ere gehitxoago zaindu naiz. Udan lanean aritu naiz, eta asteko egun bi jai izanda, kontua ez zen bata parrandan galtzea eta bestea biharamunagaz egoitea. Beraz, gutxitan irten naiz gaez. Jatekoa ere zaindu dut.

**Udan mendia eta hondartza, bien artean aukeratzeko eskatzen badizute...**

Mendia, duda barik. Eta zenbat eta mendi garaiagoak izan, orduan eta hobeto.



Ander Gerrikaetxebarria eskuman Hiru Haundiak probako podiumean.



# UCIgaz haserre, 2017an Emakumeen Bira ez antolatzea erabaki dute antolatzaileek

Espainiako txirrindularitza federazioa UCIgaz hartuemanetan dago egoera bideratzeko



laz telebista bidezko zuzeneko emankizuna eskatzen zuen UCIk, eta antolatzaileek akordioa lotu zuten ETBgaz.

**> TXIRRINDULARITZA** J. Derteano 2017an Emakumeen Bira ez antolatzekeko arriskua dago. Gaur egungo egoera eta baldintzetan ez dute egingo. UCIk proposatutako datak ez zaizkie aproposak iruditzen. Egoerari irtenbidea bilatzen saiatzeko, Espainiako Txirrindularitza Federazioa UCIgaz harremanetan jarri da. Horrek esperantzarako tartea

irekitzen duela onartu dute antolatzaileek.

UCIk Bira otsailean egitea proposatu du, baina antolatzaileek ezetz erantzun dute, klimatologia dela-eta: "Ezin gara arriskatu. Egun bateko lasterketa balitz, akaso bai, baina bost eguneko lasterketa dela kon-tuan hartuta, ezin daiteke izan. Esaterako, elurra egingo balu,

beharbada Emakumeen Birako lasterketa denak bertan behera utzi beharko genituzke", azaldu du Emakumeen Bira ZKE-ko Agus Ruizek.

Aurtengo aldia apirilean antolatu dute. Berez, hile egokia dela uste dute antolatzaileek, baina UCIk egun bateko WWT lasterketa sartu du data horietan: "Ondorioz, talderik onenak ez

lirateke etorriko. Guk Bira saldu dugun moduan saldu dugu, one-nak etorriko direla esanez, eta ezin gara babesleekin eta telebis-takoekin gezurretan ibili".

Ruizen esanetan, "guk hasieratik esan genien apirilean, maiatzean edo ekainean izan behar zuela". UCIn erantzunaren zain daude: "Beste data aproposago bategaz erantzuten badigute, hausnartuko genuke", segurtatu du: "Aurtengo aldia telebistako hedadura eskatzen zuten, eta lortu genuen. Bidali genien dokumentazio osoa eta horren guztiaren ostean, hone-gaz datozkigu".

## Elorriagaren erantzuna

Denak ez daude ados Agus Ruizen usteagaz. Bizkaia-Durango emakumeen txirrindulari el-karteko zuzendari Agurtzane Elorriagak "erreakzio ulertezi-na" dela adierazi du sare sozia-letan: "2.1 maila ez al da ona? Mundu guztian sei itzulik soilik daukate World Tour kategoria".

## ADITUAREN TXOKOA

**OIHANA AZKORBEBEITIA**

Mendi lasterketak



## Hiru Haundiak

1987an jaio zen Hiru Haundiak proba, mendi martxa gisa, Sociedad Excursionista Manuel Iradier-en eskutik, eta aurtengo hogeigarren edizioa jokatu berri da. Hasierako hamar urteetan, 1996ra arte, urtero egin izan da martxa hau, eta, hortik aurrera, urte birik behin. 2000. urtean, lehenengoz, lasterketa bat antolatu zen martxarekin batera. Hiru etapatan banandu zen lasterketa hori. Berdin egin zen 2002an eta 2004an, eta, azkenean, 2006an martxa eta lasterketa batu egin ziren proba bakar batean.

Orain hamar-hamaika urte izan nuen, estreinakoz, mendi martxa honen berri, eta garai haietan txutxu-mutxu eta istorio asko entzuten zen proba honen inguruan. Mendi martxa izaera zue-nez, jende gutxi animatzen zen korrika egitera, eta ez zituzten 100 kilometroak lasterketa gisa hartzen. Hori zen behintzat parte-hartzaileek gehienek ziotena. Kontua da helmugaratzen ziren askok denbora harrigarrian egiten zutela ibilbide osoa, oinez bakarrik egiteko. Orduko zurrumurruen arabera, partai-de batek baino gehiagok ondo baino hobeto ezagutzen zuten ibilbidea, eta gaueko iluntasuna baliatuz, *frontal* edo linternak itzali, eta lasterbideak hartzen zituzten helmugara kilometro gutxiago eginda heltzeko.

Gaur egun, izaera biei eus-ten die proba honek, mendi martxari eta lasterketari, eta lehenengo eta azkenengo helmugaratzen diren artean oso alde handiak izaten dira. Hori bai, bakoitza bere mikrotxipa aldean, inongo tranparik egin barik.

## Espainiakoan bina domina Isasik eta Zuazubiskarrek

**> TXIRRINDULARITZA** J.D. Mallorcan jokaturako pistako Espainiako Txapelketetan bina domina irabazi dituzte Ziortza Isasi elorriarrak eta Illart Zuazubiskar abadiñarrak. Isasik taldekako jazarpenean urrea

eta bakarkako jazarpenean zilarra lortu zituen. Zuazubiskarrek taldekako jazarpenean eta madisonean zilarrezko eta brontzezko domina bana eskuratu zituen. Eguaztenetik Europako txapelketan dihardu.



Zuazubiskar erdian, eta Isasi ezkerrean, podiumean.

## Munitxak garaipena helburu etxeko ziklo-kros proban



Jon Munitxa, Burgosen

**> TXIRRINDULARITZA** J.D. Domekan Abadiño Udala Saria ziklo-kros proba lehiatuko dute Zelaletan, udaletxe osteko landetan. 09:00etan master mailako lasterketak hasiko dira, 10:00etan kadeteetakoak, eta 11:00etan gazteak zein elite mailako neskak. 12:00etan, 23 urtez azpikoan, Eiser Inforlur taldeko Jon Munitxa abadiñarrak parte hartuko du, eta garaipena du helburu. Sasoian dago. Joan zen asteburuan Burgosko proba bi lehiatu zituen. Bata irabazi egin zuen 23 urtez azpikoan, eta bestean bigarren sailkatu zen.

**katerin ardoak**  
**inaki uribe**  
**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

**saltsan.com**

Bulegorako zigiluak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

**hitz** #gomendioak

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

**HELDUENTZAT**  
RYOOKAN-EN  
101 HAIKUAK  
Ryooen Taigu (2016)

**UME ETA GAZTEENTZAT**  
S.O.S. LUSITANIA  
Ordas, Cothias  
& Manini (2016)

**MUSIKA**  
DOS AMIGOS,  
UN SIGLO DE MÚSICA  
Caetano Veloso  
& Gilberto Gil (2015)







# “Taldeko askok txikitatik elkar ezagutzen dugu, eta hori islatu egiten da zelaian”

Kulturaleko Ekain Zenitagoiak bere ibilbideko lehen hat trick-a lortu zuen joan zen asteburuan

**> FUTBOLA** Joseba Derteano Ekain Zenitagoiak (Durango, 1994) hiru gol sartu zituen joan zen asteburuan, Durangoko Kulturaleko Deuston lortutako garaipenean (2-4). Bere ibilbideko lehenengo *hat trick*a izan zen. Erdilari bat partidu berean atea hiru bider zulatzen ikustea ez da batere ohikoa, eta taldearen liga hasiera eta dinamika ona islatzen du. Kulturaleko hirugarren

dago, bederatzi partidutan bost garaipen eta porrot batez.

Orain urte bi igoerako *play off*a jokatu zuen taldea lorpena errepikatzeko moduan egon daitekeela uste du Zenitagoiak: “Taldea sendoa dugu, eta oso ondo jokatzen gabilta. *Play off*a jokatu gura dugu. Ikusten dugu aukerak ditugula, eta horretara joango gara”, dio anbiziotsu. Taldearen ibilbide onaren arra-

zoi nagusietako bat euren arteko “giro ona” da, eta horretan asko laguntzen du etxeko jende asko egoteak. Zenitagoia bera Kulturaleko harrobian hezitako jokalaria da: “Taldea asko durangarrak gara, eta aspalditik elkar ezagutzen dugu. Txikitatik Kulturaleko harrobian egon gara asko. Horrek elkarregaz denbora gehiago egoteko aukera ematen digu, afariak egiteko...

eta konfiantza sortzeko. Hori islatu egiten da zelaian”.

Fitxaketen ekarpena ere garrantzitsua izaten ari da. Josu Egaña eta Jagoba Portillo Bermeotik, Julen Uribesalgo Ondarroatik, Javi Alonso durangarra Baskoniatik eta Iurgi Txopitea Lekeitiotik dira aurtengo aurpegi berriak.

Denak Igor Nuñezen aginduetara dabilta: “Entrenatzailagaz oso giro ona dago. Zugaz berba egiten du, eta nire ustez, komunikazioa inportantea da; zugana etorri eta zelan zauden galdetzea, zutaz arduratzea”.

## Hobetu beharrekoa

Aurrera begira, “azken minutuetako kontzentrazioa da hobetu beharreko alderdi bat”. Hainbat puntuk ihes egin diete azken txanpan. Alavesek 93. minutuan berdindu zien partidua, Portugaletek azken zazpi minutuetan jan zien gol biko aldea, eta Bermeok 85.ean sartu zuen garaipenaren gola.

Azken partiduetan joera hori aldatzen dabilta; atzetik hasi eta irabazi egin dituzte. Bihar, 17:15ean, Baskonia hartuko dute etxean.



Nagusietako lehen urte biak lurretakon eman zituen; iaz itzuli zen, eta aurten Amorebietagaz egin du aurrendenboraldia.

## Baqué torneoko finalak jokoan, gaur, Durangon

Gazte eta kadeteek buruz buru jokatuko dute

**> PILOTA** J.D. Cafés Baqué txapelketako finalak gaur jokatuko dituzte, 19:00etatik aurrera, Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Kadete eta gazte mailako partidu bana daude, biak buruz burukoak.

Kadetetan Iker Yuste orozkoarrak eta Alain Argaluz sopeloztarrak neurtuko dituzte indarrak. Yuste irabazteko fa-

borittoa da: kolpe gehiago du, eta txapelketan zehar erakustaldiak eman ditu. Argaluzak defentsa ona du, eta abila da aurrean. Jokoa nahasten saiatu beharko du.

Gazte mailan, berriz, Mikel Aurrekoetxea lemoarraren eta Gaizka Karregal galdakoztarraren artean dago txapela. Karregal sasoi hobean dago, eta irabazteko faborittoa da.



Finaleko protagonistak federazioko presidente Karmelo Ariznabarretagaz.

## Pilotu abadiñar bi Urrakiko podiumean

Herri eta auzo berekoak dira Urien eta Tarsicio



Tarsicio ezkerrean eta Urien eskuman, Urrakiko podiumean.

**> TXIRRINDULARITZA** J.D. Joan zen asteburuan mendi igoeren zirkuituko azken aurreko proba lehiatu zuten Urrakin. Turismoen mailan bigarren amaitu du Iban Tarsiciok (Durangaldea Racing) eta hirugarren Igor Urienek (Abadiño Karting Taldea). Ondorioz, podium berera herri eta auzo bereko pilotu bi igo ziren. Ez da sarritan ikusten den gertaera bat.

“Tarsi haundiagaz podiuma partekatzeak ilusio itzela” egin diola adierazi du Igor Urienek sare sozialetan. Tarsiciok ere “ilusio berezia eta handia” egin diola azpimarratu gura izan du.

Tarsicio mendi igoeren txapelketako liderra da Malvinaseko (Karrantza-Lanestosa, urriak 29-30) azken probaren faltan. Bigarren urtez jarraian irabazi dezake txapelketa.

## AGENDA

### > FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA (gizonak)**

**Durangoko Kulturaleko - Baskonia**

· Zapatuan, 17:15ean, Tabiran.

**MAILA GORENA (gizonak)**

**Abadiño - Salesianos**

· Zapatuan, 16:30ean, Astolan.

**LEHEN ERREGIONALA (gizonak)**

**Zorrontzako - Bermeo B**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.

**Ezkurdi - Urbiet**

· Zapatuan, 19:15ean, Tabira.

**LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)**

**Ezkurdi - Orduña**

· Domekan, 15:30ean, Tabiran.

**BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)**

**Zaldia B - Larramendi**

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

### > ARETO FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA (gizonak)**

**Presion Break - Elorriko Buskantza**

· Zapatuan, 16:45ean, Berrizburun.

**EUSKAL LIGA (gizonak)**

**Elorriko Buskantza B - Scalibur**

· Domekan, 12:00etan, Elorriko udal kiroldegian.

**Mallabia Seguros Altaldi - Vitoria-Gasteiz**

· Domekan, 16:30ean, Zaldibarko udal kiroldegian.

**LEHEN ERREGIONALA (gizonak)**

**Mallabia B - Ibaibide**

· Domekan, 18:30ean, Zaldibarren.

**Elorriko Txiki - Ibaizabal**

· Zapatuan, 16:00etan, Elorriko udal kiroldegian.

**BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)**

**Gu Lagunak - Mendibeltz**

· Barikuan, 20:30ean, Landako kiroldegian.

**Racing Tolosto - Scorpio B**

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

**LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)**

**Elorriko Buskantza - Muskiz**

· Zapatuan, 17:45ean, Elorriko udal kiroldegian.

### > SASKIBALOA

**LEHEN ERREGIONALA (gizonak)**

**Anbotopeko - Txiki**

· Barikuan, 20:00etan, Tabiran.

### > ERRUGBIA

**OHOREZKO B MAILA**

**Durango Nissan Gaur - Uni. Bilbao**

· Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan.

**AMAIUR TORNEOA (emakumeak)**

**Durango Uribe Nissan Gaur - Getxo**

· Zapatuan, 14:30ean, Arripausuetan.

### > IZEN-EMATEA

**Durangoko Gau Krosa**

**- Urriak 29 (4.5 km)**

· Izen-ematea: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)





# BAUTISTA

MUEBLES Y DECORACIÓN



## Kanpaina berezia Egongelak

**% 20 ko deskontua:**  
Egongelako altzariak, ontzitegiak, sofak eta eroso egoteko altzariak,  
mahaiak, aulkiak eta osagarriak

Zure erosketa %100 finantzatzen dugu, eta otsailean hasiko zara ordaintzen:  
10 kuota, sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe

Proiektua eta aurrekontua kompromisorik gabe  
Finantziazioa dohainik

**www.bautistamuebles.com**

 94 672 77 00

info@bautistamuebles.com

Urbite Industriagunea, 4 - 2. pabiloia ABADIÑO  
(Eroski merkataritza-gunearen ondoan)





## Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO  
Tel.: 946 813 562

### ETXEBITZAK ALOKAIUAN

**DURANGO.** Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

### ETXEBITZAK SALGAI

**DURANGO.** Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

**DURANGO.** Errotaritxueña Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

**DURANGO.** Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoiarekin eta despentsa.

**ATXONDO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

**ELORRIO.** 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea, balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

**DURANGO.** Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

**DURANGO.** ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

**LEKEITIO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO.** Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

**ABADIÑO.** Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO.** ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR.** Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela, balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

### LURSAILAK SALGAI

**ABADIÑO.** 1.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ.** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO.** Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m<sup>2</sup>. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA.** Txalel bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m<sup>2</sup> inguruko azalerarekin.

**AMOREBIETA. LARREA.** 27.000 m<sup>2</sup>-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO. GAZTELUA.** Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila baserriaren ondoan.

**BERRIZ.** Txalela 1.200 m<sup>2</sup>-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

**ATXONDO.** Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ.** Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA.** Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatuko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO.** Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatuko.

**BERRIZ.** Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobea.

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
[inmoduranguesado@gmail.com](mailto:inmoduranguesado@gmail.com)

### ETXEBITZAK SALGAI

#### ASKATASUN ETORBIDEA: DUPLEXA



- 190 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza bi solairutan banatuta. 5 logela, egongela, sukaldea jarrita, 3 komun, 2 balkoi eta 2 terraza. Garajea. Aire girotuarekin. Ikuspegi ederak eta oso eguzkitsua. 450.000€.

#### LANDAKO ETORBIDEA



- 100 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. 4 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, 2 balkoi, 20,25 m<sup>2</sup>-ko ganbara, eta garajea itxia edo zabalik izateko aukerarekin. Terraza Komunitarioa. 250.000€.

#### ASKATASUN ETORBIDEA



- 2 logelako etxebizitza (horma-armairuekin), egongela handia, sukaldea jarrita esekitoki handiarekin, baingela oso-osorik. 2 balkoi. Garaje bikoitza eta trastelekua. 239.000€.

#### DURANGO: S. ROKE AUKERA BIKAINA!



- 74 m<sup>2</sup> erabilgarri, 2 logela, 2 komun. Ganbara eta garajea. Altuera ona. 220.000€ BEZa barne.

#### ABADIÑO



- Babes ofizialeko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, balkoia. Garajea eta trastelekua. Altzariz hornitua 175.000€.

#### ABADIÑO - ARLOZABAL



- Etxebizitza eraiki berria. 2 logelarekin, 2 komun, egongela, sukaldea jarrita, garajea eta 2 trasteleku. Oso argitsua eta ikuspegi ederrekin. 167.000€.

[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

### AUKERA

- MATIENA. 3 logela. Komuna. Berriztatua. 2 Balkoi. Eguzkitsua. 143.000€.
- TABIRA. 2 logela. Komuna. Egongela. Dena berriztatua. 115.000€.
- DURANGO 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. 85.000€.
- IURRETA. 3 logela. Igogailua. Berogailua. 115.000€.
- BERRIZ. 2 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Balkoia. Igogailua. Guztia berriztatua. 115.000€.

### ETXEBITZAK SALGAI


- ASKONDO. 95m<sup>2</sup>. 3 logela. Komuna. Egongela terrazarekin. Sukaldea. Eguzkitsua. Berriztatua. 195.000€ negoziagarria.
- TRONPERRI. 4 logela. 2 komun. Egongela. Ganbara eta garajea. Txoko komunitarioa. 233.900€.
- ATIKOA. Terraza eta guzti 80m<sup>2</sup>. 3 logela. 2 Komun. Egongela. Sukaldea. Esekitekia. Trastelekua eta Garajea. 250.000€.
- ZALDIBAR. Erdialdean. 2 logela. Komuna. Sukaldea eta egongela. 45m<sup>2</sup>-ko terraza. Garajea itxia. 148.413€.
- J. M. ALTUNA. 100m<sup>2</sup>. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekitekia. Egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. 269.000€.
- SAN ROKE: BERRIA. Pisu altua, 80m<sup>2</sup>-koa. 2 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela zabala. Ganbara. Garajea aukeran. 247.000€.
- SAN AGUSTINALDE. Erdialdean. 103 m<sup>2</sup>. Berriztatua. 3 logela. Komuna. Terraza. 260.000€.
- MATIENA. 3 logela. Komuna. 158.000€.
- ASTEPE. 3 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Sukaldea. Esekitekia. Trastelekua. 199.000€.
- OLLERIA. 100m<sup>2</sup>. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekitekia. Egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. 265.000€.
- M. TORRE. 134m<sup>2</sup>. 4 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Trastelekua. 2 garaje. 270.000€.
- IURRETA. Maspe. 3 logela 110.000€.
- KOMENTUKALE. 4 logela. Komuna. Egongela. 125.000€.
- F.J. ZUMARRAGA. 100m<sup>2</sup>. 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. 236.000€.
- IURRETA. ELIXALDE. BERRIA ESTREINATZEKO. 100m<sup>2</sup>. 2 logela. 2 komun. Sukaldea Esekitekia. Egongela terrazarekin. Ganbara, eta garajea itxia. 245.000€.
- MIKELDI. Etxebizitza altua. Erdi berria. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea esekitokiarekin. Trastelekua. Garajea. 270.000€.
- EZKI. 2 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Trastelekua. Zelaiarekin. 170.000€.
- AMOREBIETA. 70 m<sup>2</sup>. 2 logela. Komuna. Berriztatua. 160.000€.
- DURANGO. ATIKOA. 35m<sup>2</sup>-ko terrazarekin. 2 logela. Komuna. Egongela. Ganbara eta garajea.
- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 terraza. Igogailua. 140.000€.
- ZUMALAKARREGI. 65 m<sup>2</sup>. (Bulegoa izateko egokia).
- TXALET. BERRIZ. 441 m<sup>2</sup>. 475.000€.
- ABADIÑO. Txanporta. 2 logela. Komuna. Ganbara. Garajea, kalera ematen duena. 130.000€.
- ELORRIO. (Plaza). 103 m<sup>2</sup>. 3 logela. 2 komun. Sukalde-egongela.
- ELORRIO. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Despentsa egongela Trastelekua. Ikuspegi onak. Eguzkitsua. 129.000€.
- IZURZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzera sartzeko prest. 85.000€.

### LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

- ZALDIBAR. Salgai. Ganbara zabalak. Egokia bulego edo estudioa izateko. EKONOMIKOA.

**LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

**ALOKAIUAN  
ETA SALGAI DITUZUN  
HIGIEZINEN BERRI  
EMAN NAHI  
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau  
eskaintzen dizu**

**Informazio gehiagorako:**  
Tel.: 946 217 902  
[publi@anboto.org](mailto:publi@anboto.org)



# anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**  
**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu: [www.anboto.iragarkilaburrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).  
**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

**Higiezinak**  
**ETXE BIZITZAK**  
**SALDU**

**Aramaio.** Berriki etxea. Aukera asko. 140m2 handitu daiteke. 3000m2-ko lursaila. Eguzkitsua, Urkiola Parke Naturaleko ikuspegiarekin. Hiru hiriburuetatik hurbil. Tel.: 669-06 47 88. Posta: [Bakarloi@hotmail.com](mailto:Bakarloi@hotmail.com).

**Mallabia.** Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsua eta ederrean, 20.000 m2-ko lursaila. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.

**PISUA KONPARTITU**  
**PISUKIDE BILA**

**Abadiño.** Logelak alokatzen dira Abadiñoako baserri batean.

Tel.: 628-88 82 63 (Unai).

**Durango.** Durangon pisukide bila nabil. Tel.: 673-68 97 69.

**GARAJE / TRASTEROAK**  
**SALDU**

**Otxandio.** Otxandion garaje itxia saltzen da. Tel.: 675-71 72 83.

**ERRENTAN EMAN**

**Durango.** Durangon garajea alokatzen da, trasteleku eta guzti. Euskaltel denda ondoan Tel.: 676-97 95 77. Posta: [Bakarloi@hotmail.com](mailto:Bakarloi@hotmail.com).

**Teknologia**  
**EMAN**

**Bidali zure ordenagailua.** Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta

Peruko ospitaleetara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

**Lana - negozioak**  
**LAN ESKARIAK**  
**OSTALARITZA**

**Durangaldea.** Sukaldeko laguntzaile moduan lan bila nabil platerak garbitzen. Esperientzia lisatze industrialean eta pertsona nagusiak zaintzen. Egun osoko lana edo orduka. Tel.: 617-13 62 22.

**Durangaldea.** Pintxoak egiteko eta taberna garbitzeko prest nago. Tel.: 673-68 97 69.

**PERTSONAK ZAINDU**

**Durangaldea.** Neska arduratsua naiz, eta lan bila nabil barneko edo kanpoko langile moduan pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Orduka ere bai. Tel.: 631-35 26 40.

**Durangaldea.** Umeak eskolara

eramateko eta etxea garbitzeko prest nago. Tel.: 673-68 97 69.

**Durangaldea.** Neska lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Barneko edo kanpoko langilea. Orduka ere bai. Asteburuetan ospitaleetan ere bai. Garbiketan ere jarduten naiz. Tel.: 611-65 52 93.

**GAINERAKOAK**

**Durangaldea.** Gizon arduratsua lan bila dabil eraikuntzan, pintore, soldatzaile... Tel.: 674-90 14 38.

**Durangaldea.** Neska lan bila dabil garbiketan jarduteko. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 631-98 84 71.

**Durangaldea.** Neska lan bila dabil garbiketan jarduteko. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 612-24 53 26.

 **PLATERUENA**  
KAFE ANTZOKIA

**PLATERUENAK JARDUN OSOKO ZERBITZARIA BEHAR DU.**  
  
Baloratuko da Durango edo Durangaldekoa izatea, lan esperientzia, talde lan gaitasuna eta euskara maila.  
  
Curriculumak jasoko dira Urriaren 23a arte eta barran entregatu ahal dira edota [zuzendaritza@plateruena.net](mailto:zuzendaritza@plateruena.net) helbidera bidali.

**Denetarik**  
**SALDU / EROSI**  

**Intxaur batzea.** Intxaurrak salgai Durangaldeko baserri batean. Norberak batu behar ditu. 2,5 euro kiloko. Erraz batzen dira. Tel.: 675-71 34 01.

HIZLARIAK

**Xabier Altzibar**  
UPV-EHUko irakasle eta ikertzailea

**Eneko Bidegain**  
Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta idazlea



**I. Guda Mundialeko kronista**



**Evaristo Bustintza Lasuen**  
**Kirikiño**  
BARRIKETALDIA  
**2016ko urriaren 27an, 19:00etan**  
Mañariko Errose Bustintze Kultur Etxean



# AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

**Urriaren 21ean, 22:00etan, Durangoko txosnagunean**

## Morgan

‘North’ taldearen lehenengo diskoa aurkeztera etorriko da Morgan boskote madrildarra, gaur, Durangora. Txosnagunean arituko da baterian Ekain Elorza berriztarra daukan taldea. Bullit eta The Yellow Machine taldeak ere gonbidatu dituzte gaur Durangoko jaietan aritzera.

### Musika

**:: BERRIZ**

URRIAREN 21ean

**22:00etan**, ‘Torreburutik mundura’, Kultur Etxean.

**:: ELORRIO**

URRIAREN 28an

**22:30ean**, Urkotxo y Los Primos de Riesgo, Ateneoan.

### Antzerkia

**:: BERRIZ**

URRIAREN 28an

**18:00etan**, ‘Wangari, zuhaitz neska’, Kultur Etxean.

### Erakusketa

**:: BERRIZ**

URRIAN ZEHAR

**Oier Anduezaren** margolanak, Kultur Etxean.

**:: DURANGO**

AZAROAREN 13ra arte

**El lugar de los árboles** erakusketa kolektiboa: Misha de Ridder, Regina Anzenberger, Pablo Castilla eta Ellen Bornkesselen argazkiak, Museoan.

**:: ZORNOTZA**

AZAROAREN 13ra arte

**Frozen trees**, Imanol Marrodanen argazkiak, Zelaieta zentroan.

### Berbaldia

**:: BERRIZ**

URRIAREN 25ean

**19:00etan**, ‘Periodista Canalla’ ikerkuntza kazetaritza proiektuari buruzko berbaldia, Kultur Etxean.

**:: DURANGO**

URRIAREN 27an

**18:00etan**, ‘La herejía de Durango’, Museoan.

**:: ZORNOTZA**

URRIAREN 27an

**19:00etan**, ‘Shiitake ekologikoaren hazkuntza eta mikologia’, ENEEK-en egoitzan (Jauregibarria baserria, 4, 1).

### Jaiak

**:: DURANGO**

URRIAREN 21ean

**17:00etan**, Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldia, Ezkurdin.

**18:00etan**, tortilla txapelketa, Txosnagunean.

**21:30ean**, Smoking Stones (Rolling Stones-i tributoa), Andra Maria.

**22:00etan**, Morgan + Bullit + Yellow Big Machine, txosnetan.

**22:30ean**, bertso saioa, Peñagarikano, Egaña, Elortza, Uria, Soto eta Inguaranekin, San Agustinen.

**21:30ean**, Smoking Stones (Rolling Stones-i tributoa), Andra Maria.

**22:00etan**, Morgan + Bullit + Yellow Big Machine, txosnetan.

**22:30ean**, bertso saioa, Peñagarikano, Egaña, Elortza, Uria, Soto eta Inguaranekin, San Agustinen.

**URRIAREN 22an**

**07:00etan**, Diana txistulariekin.

**07:30ean**, Zezenak Dira dultzaineroekin.

**10:30ean**, xake txapelketa federatuentzat eta federatu bakoentzat, Ezkurdin. Izen-ematea ordu erdi lehenago.

**11:00etan**, nekazaritza azoka, Ezkurdin. Umeentzako mozorro tailerra, Andra Marian. Astronomia eskulan tailerrak, Plateruen plazan. Umeen puzgarria, txosnetan.

**12:00etan**, kalejira txistulariekin. Patata tortilla txapelketa, Landakogunean.

**13:00etan**, haurren mozorro-desfilea eta sari banaketa, Andra Marian.

**14:30ean**, elkartasun bazkaria, txosnagunean.

**17:00etan**, Animazioa trikitixarekin. Futbol partidua, Tabiran. Kulturala-Baskonia.

**17:30ean**, 16 urtetik beherako errektortari gaztetxo txapelketa.

**18:00etan**, errugbi partidua Arripausetan. Elektrotxufla txosnetatik.

**18:30ean**, Taldekako mozorro desfilea, Madalenatik Andra Mariraino. Kalejira Sugarri fanfarriagaz, Madalenatik Alde Zaharrera.

**19:00etan**, Astronomia tailerra eta txokolatada, Zuhatzola parkean. Ondoren, behaketa astronomikoa.

**20:00etan**, DJ Unai Goikolea, Andra Marian.

**20:30ean**, ekitaldia, txosnagunean.

**21:00etan**, zezen suzkoa, Santa Ana plazan.

**21:30ean**, Ghanako txarangaren kalejira, Alde Zaharretik.

**22:30ean**, Nueva Alaska orkestra, Ezkurdin.

**23:00etan**, Luhartz, txosnetan.

**00:00-03:00**, alkoholemia kontrolaren stand informatiboa, Santa Anan.

**URRIAREN 23an**

**07:00etan**, Diana txistulariekin.

**07:30ean**, Zezenak Dira dultzaineroekin.

**09:30ean**, III. Padel txapelketaren finala (neskena), Landako kiroldegian.

**11:00-14:30**, haur parkea, Ezkurdin. Ohe elastikoak, zezen mekanikoa eta jolasak, Landakogunean. Erreziklatutako jolasak, Ezkurdin.

**11:30ean**, bizikletaren jai, Andra Maritik irtenda.

**11:30ean**, III. Padel txapelketaren finala (mutilena), Landako kiroldegian.

**12:00etan**, kalejira txistulariekin. Poniak eta zaldiak, Landakoguneko parkean.

**12:00-14:00**, arku-tirorako gunea, Landakoguneko parkean.

**12:30ean**, herri kirolak, Ezkurdin.

**13:00etan**, Bilbainadak Los Txikis taldeagaz, Andra Marian.

**16:00-19:00**, Erreziklatutako jolasak, Ezkurdin.

**17:30-19:00**, dantza tailerra, Ezkurdin.

**17:30ean**, Grupo Mexico mariatxiekin kalejira, Alde Zaharretik. Reziklator perkusio ikuskizuna, Santa Anan.

**18:00etan**, LUMIren kontzertu lasaia, txosnagunean. Grupo Mexico mariatxiak, Andra Marian.

**18:30ean**, Ardoa Barrura fanfarriaren kalejira, Alde Zaharretik.

**19:30ean**, Patxikotxuri agur esateko kalejira, udaletxetik tren-kotxera zaharreraino.

**20:00etan**, jaien amaiera, tren-kotxera zaharretan.

**URRIAREN 29an**

**19:30ean**, Gau Kros txikia, Santa Anan.

**20:00etan**, Gau Krosa, Santa Anan. XXII. Txistu kontzertua, Landakogunean.

**URRIAREN 30ean (50. Umeen euskal jai)**

**12:00etan**, dantza taldeak merkatu plazan elkartu, eta kalejira egingo dute.

**13:00etan**, IV. Argazki txapelketaren sari banaketa, San Agustin kulturgunean.

**17:00etan**, alardea, Ezkurdin.

### Kontalaria

**:: ELORRIO**

URRIAREN 21ean

**17:00etan (3-5 urtekoentzat) eta 17:30etan (6-9 urtekoentzat)**, Jone Irazabal kontalaria, umeen liburutegian.

**Dantza**

**:: ZORNOTZA**

URRIAREN 28an

**21:00etan**, ‘Oskara’ ikuskizuna Zornotza Aretoan.

### BERRIZ | KULTUR ETXEA

**Zipi & Zape**

- barikua 21: 18:00
- domeka 23: 17:00

**Oraindik hemen gaude**

- eguaztena 26: 19:30

**:: DURANGO | ZUGAZA**

**Un monstruo viene a verme**

- barikua 7: 17:00/19:30/22:00
- zapatua 8: 17:00/19:30/22:30
- domeka 9: 17:00/19:30/22:00
- astelehena 10: 18:30/21:00
- martitzena 11: 20:00
- eguaztena 12: 17:00/19:30/22:00
- eguena 13: 20:00

**Mechanic: Resurrection**

- barikua 7: 19:30/22:00
- zapatua 8: 19:30/22:30
- domeka 9: 19:30/21:30
- astelehena 10: 18:30/21:00
- martitzena 11: 20:00
- eguaztena 12: 19:30/22:00
- eguena 13: 20:00

**Elle**

- barikua 7: 20:00
- zapatua 8: 22:00
- domeka 9: 22:00
- astelehena 10: 18:30/21:00
- martitzena 11: 20:00
- eguaztena 12: 22:00

**Cigüeñas**

- barikua 7: 17:00
- zapatua 8: 17:00
- domeka 9: 17:00
- eguaztena 12: 17:00

**Zikoinak**

- barikua 7: 17:00
- zapatua 8: 17:00
- domeka 9: 17:00
- eguaztena 12: 17:00

**Zipi & Zape eta kapitainaren iria**

- barikua 7: 19:30
- zapatua 8: 19:30
- domeka 9: 19:30
- eguaztena 12: 19:30

**:: ELORRIO | ARRIOLA**

**Argi**

- zapatua 8: 22:00
- domeka 9: 20:00
- astelehena 10: 20:00
- eguaztena 12: 20:00

**:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA**

**Un monstruo viene a verme**

- barikua 7: 22:15
- zapatua 8: 19:30/22:00
- domeka 9: 20:00
- astelehena 10: 20:15
- martitzena 3: 20:15

**Buscando a Dory**

- zapatua 8: 17:00
- domeka 9: 17:00



> **ZORION AGURRAK**

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguztarenko 14:00ak arteko epea



> **Tere Zubizarretak** eta **Angel Alberdik** 50 urte egin dituzte ezkontuta. Familian ospatu zuten eguna. Etxeko danen partez, zorionak, bikote!



> **Milak** eta **Karmelok** 50 urte egin dituzte ezkontuta. Zorionak Txopoetako familiaren partez!



> Zorionak zazpi urte bete dituen **Peruri** etxeko guztion partez!



> Zorionak, bikote! Astelehenean **Saioak** 16 urte beteko ditu, eta barikuan **Anderrek** 14. Musu piloa Axpetik eta Lekitxotik.



**MIREN RODRIGUEZ**

**Fruta itxuraz distiratsuak**

Frutak kanpotik izaten duen itxura funtsezkoa iruditzen zaie kontsumitzaileei eroste-ko orduan. Azal leuna duten aleak bilatzen dituzte, deformaziorik gabeak eta ia perfektuak.

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen arabera (FAO), elikagaien aurkezpena, itxura, uniformetasuna, heldutasuna edo freskotasuna funtsezko osagaiak dira erosketa egiteko orduan, kontsumitzaileek garrantzi handia ematen baitiete kanpoko alderdi horiei. Kanpo faktore horien guztien artean, kolorea izaten da (bai kolorearen bizitasuna eta bai uniformetasuna) kontsumitzaileak errazen aztertu eta neurtu dezakeena, eta erabakigarria izaten da, adibidez, barazki hostodunetan, kolorea eta freskotasuna elkarri lotuta ikusten baititu jendeak.

Argizariari esker, itxura distiratsu eta gustagarria ematen diote elikagai mota horri eta, horrekin batera, eragotzi egiten dute frutak izerdia kanporatu eta ura gal dezan. Kanpoko itxuraz gain, ordea, gero eta garrantzi gehiago ematen zaio barneko kalitateari ere, besteak beste zaporeari, lurrinari, testurari edo kutsatzailerik ez izateari. Frutarik eta barazkirik gehienek berez sortzen dute argizarizko geruza natural bat hezetasunari eusteko, trinkotasuna hobetzeko eta elikagaia bera motelago hondatzeko (berezko prozesua izaten da hori). Kontuan izan behar da elikagai horiek ur asko izaten dutela, eta bildu ondoren ere, jarraitu egiten du heltzeko edo umotzeko prozesuak.

> **BOTIKAK**

**BARIKUA, 21** · 09:00-09:00

**Campillo** Montevideo etorb. 24 - Durango

**Guarrochena, Lide** Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ZAPATUA, 22** · 09:00-09:00

**De Diego** Intxaurrondo 22. - Durango

**Guarrochena, Lide** Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-13:30

**Gaztelumendi J.A.** Abasolo 2 - Durango

**Campillo** Montevideo etorb. 24 - Durango

**Bazan Diaz** Uribarri 5 - Durango

**Balenciaga** Ezkurdi plaza 8 - Durango

**Unamunzaga** Muruetatorre 2C - Durango

**Navarro** Artekalea 6 - Durango

**Sagastizabal** Askatasun etorb. 19 - Durango

**Larrañaga-Balentiaga** Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

**Eguren, Isabel** Trañabarren 15 - Abadiño

**Bartolome** Gabiola 2 - Berriz

**Goiria, Mari Carmen** Sabino Arana 6 - Zornotza

**Melero, Rosa Mari** San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoien** Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**DOMEKA, 23** · 09:00-09:00

**Gaztelumendi J.A.** Abasolo 2 - Durango

**Guarrochena, Lide** Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ASTELEHENA, 24** · 09:00-09:00

**Etxebarria** Montevideo etorb. 2 - Durango

**Goiria, Mari Carmen** Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**MARTITZENA, 25** · 09:00-09:00

**Irigoien** Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

**Goiria, Mari Carmen** Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**EGUAZTENA, 26** · 09:00-09:00

**Unamunzaga** Muruetatorre 2C - Durango

**Goiria, Mari Carmen** Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**EGUENA, 27** · 09:00-09:00

**Sagastizabal** Askatasun etorb. 19 - Durango

**Goiria, Mari Carmen** Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)



> Etxeko futbolaririk onenak 7 urte egingo dauz. Zorionak, **Ibai!** Ederto pasa zure egunean. Muxu handi handiak Jokinen eta amaren partez!



> Zorionak etxeko spidermani. Oso ondo pasatu gendun eguna. Muxu bat danon partez.



> Zorionak, **Lander**, zure bederatzigarren urtebetetzien. Besarkada handi bat etxekuen partez.



> **Nahikarik**, hilaren 19an, 3 urte egin ditu. Zorionak etxekoen partez!



> Urriaren 23an **Jokinek** 11 urte beteko dauz. ZORIONAK, guapo! Ondo pasa zure egune! Muxu piloa! bat Ibai eta amaren partez.



> Zorionak gure etxeko bikote polittari! 4 urtetxo hauek ospatzeko, laster izango dugu gurekin oparirik bereziarena. Asko maite zaituztegu, printzesak.



> Gure amama **Karmenek** 80 urte bete ditu. Zorionak eta muxu pila bat familiaren partez. Besarkada handi bat. Asko maite zaitugu!



> Zorionak eta egun oso ona pasa dezazula, ama. Musu handi bat etxekoen partez.

**Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta online!**

merkataritza  
gida **online**

[anboto.org/gida](http://anboto.org/gida)



Merkataritza gidan agertzeko deitu:  
946 217 902



# “Euskaldunengandik duten duintasun hori da gehien gustatzen zaidana”

Iazko irailetik Otxandion bizi da, eta Vulcano futbol taldeko 2. entrenatzailea ere bada milandarra

**> AKUILUA** Aitziber Basauri  
‘Amatriciana’ solidarioa izan dute Otxandion, Italia erdialdea astindu zuen lurrikaran kaltetuei laguntzeko. Hori antolatzen aritu da Alessandro Ruta, ofizioz kirol kazetaria den milandarra. Kirolari lotutako hiru liburu ere idatzi ditu.

**Nola joan zen ‘Amatriciana’ solidarioa?**  
Uste ez nuen arrakasta izan du. Athletic eta Realaren arteko derbia eta Durangoko bihararamuna tarteko... Ostera, 443,10 euro batu ditugu. 500 gramo gelditu ziren zazpi kilo espagetitik.

**Pozik erantzunagaz, beraz.**  
Bai! 60-70 pertsonen hartu zuten 2,50 euroko errazioa. Beste askok diruz lagundu dute. Italiako erdialdea astindu zuen lurrikararen albisteagaz esnatu nintzen goiz hartan, haxe esan nuen: *Cazzo, ancora!* (arraioa, berriz ere!). Ehunka hildako eragindako lurrikara asko sufritzen ditu Italiak, beti inguru berean. 2009an, L'Aquilan gertatu zen, Amatricetik gertu.

**Horregatik erabilitako saltsa.**  
Bai. Etxean egindako tomatea, ondutako txerri-masaila, ardi-gazta birrindua, olio eta piperbeltz beltza. Horrexek osagaiak. Sekretua piperbeltza, ez tarria zabaltzen du eta. Edateko, berriz, onena, Italiako Montepulciano ardoa. Guk bertako produktuekin ‘amatriciana’ berezia egin genuen.

**Zer egiten du italiar batek Otxandion?**  
Euskara ikasi, lehenengo eta

behin. Etxetik lan egiten dut, eta Vulcano futbol taldeko 2. entrenatzailea naiz. Horrek asko lagundu dit integratzen. Iazko irailean etorri nintzen, baina, udaro etorri naiz, zazpi urtean.

**Zaila da euskara ikastea?**  
Ezinezkoa, hizkuntzagatik baino, euskalkiengatik. Italiara, ingelesa, frantsesa eta gaztelania dakizkit, eta aleman apur bat. Euskara bakarra delako da zaila, baina, kalean asko ikasi dut. Esango nuke %80 ulertzen dudala. Hitz egin... era italiarrean’.

**Maitasunak ekarri zaitu?**  
Bai. Baina aurretik ezagutzen nuen Euskal Herria. Hemengo historiak beti erakarri nau. Ez naiz etorri ‘ipurdia agerian’. Ondo nekien nora nentorren. Baina, Jaione ezagutzean jakin nuen inoiz etorriko ginela. Zorionez, badaude hegaldiak!

**Herrimina duzu?**  
Ez! Egunen batean... Milan oso hiri kutxatua, estresagarria da; 1.300.000 biztanle ditu. Otxandio 1.013. Hau bai bada ‘bizimoduz aldatzea’, eta ez Milane-tik Madrilerara joatea, adibidez.

**Zerk deitu dizu atentzioa?**  
Historiaren zale amorratua naiz, eta asko irakurri dut. Hemen izan zen gerra zibilari buruz ere bai. Otxandio sufritu zuena jakiteak, historia zatiak ukitzeko aukerak deitu dit atentzioa. Bonbardaketaren 80. urteurrena ere oso gogorra izan zen. Euskaldunengandik duten duintasun hori da gehien gustatzen zaidana. Italiako leku ba-

tzuetan ikusten ditut ezaugarri horiek: Sardinian edo Friulin. Gainera, ez da erraza euskaldunak lehenengoan ezagutzea.

**Hala uste duzu?**  
Bai, hesi hori apurtu egin behar da. Milan hiri oso berekoa da. Hemen ez da horrela. Adibidez, jaietan: denen artean antolatzen da, garbitzen da... Milanen hitz magikoa da delegatzea.

**Pasta egiten bada-kigu?**  
Ez. Italian dioten moduan pasta on bat egiteko sekretua pasta da. Eta hemengo...

**Italiarrei buruzko topikoak egia dira?**  
Bai! Espektakulua egitekoa, eskuzabala eta oso berbatia. Horiek dira italiarren banatu ezinezko ezaugarriak. Ez dira inoiz garaiz iristen, eta lana azken unera arte atzeratzen dute. Apur bat arraroa naiz ni: ez zaiteta kafea gustatzen, eta nahiko lasaia naiz. Dena den, italiarra lagun taldeagaz da italiar, bestelakoa da bakarririk.



## LAUHORTZA

**AMAIA UGALDE**

Kazetaria



### Metro karratua

Mundua konpontzeko elkarrizketen tonuan, haxe esan zidan lagun batek behin: “Ondorio batera heldu naiz; alperrik gabiltza ingurua euskalduntzeko energia gastatzen. Euskaltzaleok gure ghettoan batu beharko genuke, berau zaindu, gure artean ume asko eduki, eta listo”.

Ateraldiari barre egin nion. Baina bai, ni ere sarri sentitu naiz ghetto horretan, gure burbuilan, gure metro karratuan.

“Ezin badut mundua aldatu, metro koadro bat aldatuko dut”. Ideia hori Metrokoadroka sormen laborategikoei entzun nien behin. Ederra da. Gure ingurua moldatzen hasteko indarra eman dezake. Mundua ez, baina mugitzen garen metro karratua bai, aldatu dezakegulako; hortik hasi, behintzat.

Baina klaustrofobia apur bat ere ematen du horrek. Hain zaila da besteen metro karratueta eragitea?

Nik neuk euskara inposaketa-ekin lotzen dutenen metro karratua aldatu gurako nuke. Gure hizkuntzaz gozatzetik urrun dabilen horien burbuiletara kuku bat egin.

Eta antzera beste gai askorekin. Aldatu gurako nuke taldean neska bat bortxatzea dibertigarria iruditzen zaien metro karratua. Eta gerretatik ihesi datozen pertsonak mehatxu direla uste dutenena. Baita diru eta botere gehiago edukitzeko edozer egin daitekeela uste dutenen metro karratua ere.

Metro karratu horietara guztietara sartzeko, gure inguruan ordaindu bako lan asko egiten da. Sentsibilizazioa, kontzientzia, kanpaina... hiztegian horrelako berbak dituen jendea dabil tartean.

Ozen berba egiten jarraitzea izango da gakoa, agian, besteen burbuiletara hitzon oihartzunak heldu daitezen.

**Smurfit Kappa**  
Central Forestal

**48 urte**  
EUSKADIKO PINUDIAK ZAINTZEN

**Smurfit Kappa**  
Nervión